ASTELEHENEKO
# Goienkaria

2010eko ekainaren 14a > Astelehena > VII. urtea > 281. zenbakia > 1,10 euro

Goiena 10 URTE www.goiena.net TOKIKOM

**"Iparraldeko herrialdeek interes ekonomiko handiak dituzte Afrikan"**



**Mbuyi Kabunda**
Nazioarteko Harremanetan irakaslea > 8

**G2a** Diru sarrerak handitzeko, klubak lanean > 29

**ARRASATE**
Bikoiztu egin dira diru sarrerak bermatzeko laguntza eskaerak > 14

**KIROLA**
Jende ugari Azkoagainen Jose Luis Agirreren omenaldian > 25

**KULTURA**
Zale ez direnak ere jazzaz gozarazi zituen Mikel Bikendik Aramaion > 30

# Lortu duzue, lortu dugu!

> 21-23



TXAPELDUNAK Reala lehen mailan da berriro. Goian, Mikel Gonzalez taldekideekin igoera ospatzen, atzo Anoetan. XABI URTZELAI

**AURKIBIDEA**

**Debagoiena** > 04-07
**Elkarrizketa** > 08
**Iritzia** > 10
**Herriak** > 11-20
**Kirola** > 21-27
**Kultura** > 29-33
**Sailkatuak** > 34-35
**Telebista-Irratia** > 36
**Berri-zakua** > 37
**Asteburuko albuma** > 37

**DEBAGOIENA** > POLITIKA

## Udalbiltza: kale bilkurak ibarrean

Udalbiltzaren aurkako epaiketengatik, elkarretaratzeak izan ziren zapatuan hainbat herritan > 04

**AZPIEGITURAK** > ARRASATE

## Olandixoko tunela, zabaltzear

Hiru aste barru zabalduko dute Arrasateko mendebaldeko saihesbidea. Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepide zaharra eta Aramaiorako bidea lotuko ditu Olandixoko tunelak. > 03



# Datuek dena diote.

**GOIENKARIA**
> 30.000 lagunek irakurtzen dute astero Debagoienean, papereko bigarren irakurriena baino 10.000 irakurle gehiagok.*
> Goienkariak 34.000 irakurle ditu Gipuzkoan.

**GOIENA TELEBISTA**
> 8.000 lagunek ikusten dute egunero Debagoienean, iaz baino 2.000 lagun gehiagok.*

**GOIENA.NET**
> 2010eko lehen lau hilabeteetan 218.280 bisita izan ditu; iaz baino 67.077 bisita gehiago denbora-tarte berean. **

# Eta guk gauza bakarra: eskerrik asko.

*CIESek 2010eko lehen lau hilekoan egindako neurketa. ** Google Analytics-en bidez egindako neurketa.

Goiena
Komunikazio Zerbitzuak

**AZPIEGITURAK** > OLANDIXOKO TUNELA

# Hiru aste barru, Arrasateko saihesbide berria zabalik

**MARTXA ONEAN** Mendebaldeko saihesbideko obrak ondo doaz; azken uneko ezustekorik ezean, hileko azken egunetarako bukatuko dituzte lanak

**BIRIBILGUNEAK** Egiteke dauden lanen artean, Mugarri pareko biribilgunea da orain erronka handiena; oraindik, azken errematek falta dira

**100 LANGILE** Obratako faseen araberakoa izan da langileen kopurua; egun, 100 langile inguru dabiltza lanean, hiru txandatan eta asteburuan

**JOKIN BEREZIARTUA** > ARRASATE

Amaitzear dira Arrasatetik Aramaiorako eta Aramaiotik Arrasaterako auto ilarak, amaitzear lanera joateko eta lanetik bueltatzeko auto barruko haserrealdiak. Izan ere, laster zabalduko dute Mendebaldeko saihesbidea, hau da, Arrasateko herri barruko eta periferiako zirkulazioa nabarmen baretuko duen Olandixoko tunela. Tunelak Arrasate eta Aretxabaleta arteko errepide zaharra eta Aramaiora bidean doan errepidea lotuko ditu, Arrasatera sartu beharra saihestuz. Hainbat herritar daude tunela noiz zabalduko den zain.

2008ko ekainean hasi zituzten obrak eta Aldundiak lanok 2010eko uztailaren 7an amaitzea agindu zuen. Bada, obrak zuzentzen ari den Bidegi Gipuzkoako Azpiegituren agentziak aditzera eman duenez, ekaineko azken astean edo uztaileko lehen egunetan amaituko dituzte obrak. Beraz, epeak bete egingo dira, eta halako obra handietan salbuespena da hori: "Obra handia izan da, eta oraingoz zehaztutako epean doa dena, lanak ondo joan diren seinale", adierazi dute.




Mugarriko biribilgune berritik sarrera honetara helduko dira gidariak. JULIO CALLEJA

**BIRIBILGUNEA, AZKEN ERRONKA**

Tunela zulatuta eta eginda dago, eta bertako instalazioa egitea amaitzear dago. Obra osoan zehar, oro har, azken errematek falta dira. Baina bada oraindik egiteke dauden lan aipagarriak: Mugarri parean–gasolindegi ondoan– egingo den biribilgunea batez ere. Finean, biribilgunea eta lotunea asfaltatzea eta behar den moduan egokitzea da azken erronka.

Horretarako, 100 langile inguru dabiltza lanean, jo eta ke, hiru txandatan eta aste bukaeretan ere bai. Obren faseen araberakoa izan da langile kopurua. Izan ere, Bidegitik adierazi dutenez, "obra oso garrantzitsua" da eta "orain bertan" langile asko behar dira.

**AUTOPISTEN ANTZEKO GASTUA**

Olandixoko tunela proiektu garrantzitsua dela ez dago zalantzarik: 40 milioi euro inguruko inbertsioa izan da, hau da, kilometro bakoitzeko 20 milioi inguru. Bi kilometro eskaseko saihesbidea izango da eta aurrekontuaren zati handiena, 860 metro luze izango dituen tunelean gastatu da. Aurrekontu hori, Bidegiren arabera, autopistak egiteko erabiltzen den aurrekontutik gertu dabil.

Hala ere, ez da garrantzitsuena saihesbidea egiteak zenbat kostatu duen, garrantzitsuagoa da jakitea tunelaren irekierak Arrasateko zirkulazioa noraino baretuko duen: Aldundiaren kalkuluen arabera, San Andres auzoan 11.000 ibilgailu ibiltzen dira egunero. Bada, Bidegik uste du ibilgailu kopuru horretatik "gehienek" Olandixoko tunela erabiliko dutela. Bereziki Aramaiotik Arrasaterako bidean, Markuleteko industrialdean, "segurtasunean eta bizkortasunean" irabaziko dugu, Bidegik aditzera eman duenez.

**LURJAUSIA, ARAZO HANDIENA**

Obrek iraun duten bi urteotako ezusteen artean, Aretxabaletarako bidean egon ziren lurjausi txikiak nabarmendu ditu Bidegik: "Ez zen obrek eragindako lurjausia izan, baina atzerapena eragin zuen lanetan".

Horrez gain, Mugarriko biribilguneari edukiera gehiago eman diote, hasierako proiektua aldatuz. Edozelan ere, lanak "oro har, martxa onean" joan direla azaldu du Bidegik. Arazoak, baina, izan daitezke oraindik. Eta arazo posible horien artean, eguraldia izan ohi da errepideetako lanak atzeratzen dituen lehen faktorea; Bidegik argi azaldu du: "Ez da berdina neguan edo udan lan egitea, eta batez ere, asfaltatzelanak eguraldi txarrarekin egiteak asko zailtzen du lana".

Gainera, eraikuntzaren sektoreak greba deitu du ekainaren 16rako eta Bidegik dio inork ez dakiela nola eragingo duen: "Egoerak ez du grebara gonbidatzen, baina kontuan izan behar da greba egitea eskubide bat dela. Ez dakigu greba egingo denik ere, azken orduan hainbat greba bertan behera gelditzen direlako; eta egiten bada ere, ez dakigu nolako jarraipena izango duen, ezta noiz arte iraungo duen ere" esan dute Bidegitik.

**Inbertsio handia suposatu du Olandixoko tunelak, autobideen antzekoa**

**Aretxabaletarako bidean izan ziren lurjausi txikiak izan dira arazo nagusiak**

DATUA

## 860

**METRO LUZEKO TUNELA**

Olandixoko tunelak ia kilometro bat izango du: 860 metro, hain zuzen. Saihesbide osoa ez da bi kilometroetara heltzen, eta, beraz, tunelak eragin ditu buruhauste gehien.

## 11

**MILA IBILGAILU EGUNERO**

San Andres auzoan 11.000 ibilgailu ibiltzen dira egunero, Gipuzkoako Aldundiak egindako kalkuluen arabera. Horietatik "gehienak" saihesbidea erabiliko dutela dio Bidegik.



Bergaran elkarretaratzea egin zuten zapatu eguerdian, udaletxe aurrean. JULIO CALLEJA

**DEBAGOIENA** > POLITIKA

# Udalbiltzari elkartasuna adierazteko elkarretaratzeak

Ibarreko hainbat herritan elkarretaratzeak deituta zeuden; Bergarako udalbatzarrak Udalbiltzaren aldeko mozioa onartu berri du

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

*Bai Udalbiltzari, Bai Euskal Herriari* lelopean, 30 bat lagunek elkarretaratzea egin zuten zapatu eguerdian Bergarako San Martin plazan, udaletxe aurrean. Ibarreko hainbat udaletan, Arrasaten eta Aretxabaletan esaterako, elkarretaratzeak deituta zeuden. Udalbiltzaren aurkako epaiketa salatzea zen helburu nagusia. Izan ere, Udalbiltzako hautetsi eta langile izan diren 22 lagunendako 10 eta 23 urte bitarteko kartzela zigorrak eskatzen dituzte fiskalak zein herri akusazioak, Madrileko Auzitegi Nazionalean egiten ari den epaiketan. Udalbiltzaren behin betiko legez kanporatzea ere eskatzen dute.

**MOZIOA BERGARAN**

Horren aurrean, Bergarako udalbatzak Udalbiltzaren aldeko mozioa onartu zuen azken osoko bilkuran, udal gobernu taldearen, EAJ eta EAren aldeko botoekin. PSE-EEko bi zinegotziek ezezko botoa eman zuten.

Udalbiltza, Euskal Herriko udalen eta udal hautetsien biltzarra zazpi lurraldeetako ia 1.800 udal hautetsik sortu zuten 1999ko irailean. Udalbiltzako hautetsi eta alkateak kriminalizatzea demokraziaren aurkako ekimena dela jasotzen da aipatutako mozioan.

**ARETXABALETA** > EZKER ABERTZALEA

# Udaletxean aspaldian jasaten duen diskriminazioa salatu du ezker abertzaleak

Herriaren erabakia errespetatzeko eskatuz, pankarta erakutsi zuten plazan egindako elkarretaratzean



Egubakoitzean egin zuten elkarretaratzeko irudi bat. JULIO CALLEJA

**E.M.** > ARETXABALETA

Egubakoitz arratsaldean elkarretaratzea egin zuten Aretxabaletako plazan, azken urteotan ezker abertzaleak udaletxean jasan behar izan duen egoera salatzeko. *Herriaren erabakia errespetatu. 7 urte Udaletik kanpo. Ez apartheid* zioen pankarta erakutsi zuten hainbat herritarrek euripean.

Udaletxetik kanporatuak izatea salatzen dute: "Apartheid egoera hau salatu beharra daukagu benetako marko demokratiko bat lortzeko bidean ez dagoelako inolako aitzakiarik, ez dago zuritzerik. Batzuek zein besteak denborak epaituko ditu, baina bitartean guri dagokigu egoera hau salatzea, iraultzea. Zazpi urte bete dira udaletxetik bota gintuztenetik, batzuek *de facto* Espainiako lege faxistak aplikatuz eta beste batzuek hitz politez atzeko atea zabalduz, atxabaltarron borondateari baino lege antidemokratikoari men egin eta, bide batez, probetxua atereaz".

> GARAPENA

### Ekuadorri buruzko hitzaldia eguenean Arkupen, Hiruatx eta Dorian Fernando Ruizen eskutik

Hiruatx gobernuz kanpoko erakundeak antolatuta, Dorian Fernando Ruizen hitzaldia izango da eguenean, hilaren 17an, Aretxabaletako Arkupe Kultur Etxean, 18:30ean. Ekuadorrekoa da Dorian Fernando Ruiz, salinastarra hain zuzen ere eta bere jaioterriko egoera izango du aztergai *Salinasen nola?* izenburupean. Salinasi buruzko bideo dokumentala erakutsiko du eta, era berean, Salinasen aurrera eraman duten proiektu kooperatiboa azalduko du Dorian Fernando Ruizek.

> MEDIKUNTZA

### Osteoporosiaren gaineko jardunaldia egingo dute hainbat adituk eta medikuk eguenean Aretxabaletan

Debagoieneko Ospitaleak urtero antolatzen duen Osteoporosi Ikastaldiaren bosgarren edizioak Espainiako estatuko adituak eta medikuntzako profesionalak batuko ditu eguenean, ekainaren 17an. Jardunaldia Aretxabaletako Otalora Jauregian egingo dute, 09:00etan hasita. Besteak beste, Manuel Sosa, Jose Manuel Quesada, Jose Ramon Caeiro eta Iñigo Etxeberria, Debagoieneko Ospitaleko traumatologia zerbitzuko arduradun izango dira parte hartuko duten sendagileetako batzuk.

> EUSKARA

### Mintzapraktika Bizkaiko 17 baserritan egiteko aukera udan, Topagunea eta EHNEren eskutik

Bizkaiko hainbat baserritarren laguntzarekin, Topaguneak eta EHNEk programa berritzaile bat jarri dute abian udan ere mintzapraktika egin ahal izateko. Doakoa da, nahi eta ahal den beste denboraz: egun pasa, goiz bat, egun pare bat... Baserritarrek mantenua eta ostatua dohainik eskainiko diete mintzalagunei, baserriko lanetan ahal duten neurrian laguntzearen truke. Busturialdea eta Mungialdeako 17 baserritan dute horretarako aukera. Argibideak: *mintzapraktika@topagunea.org* edo 948 13 26 93.





Eusebio Sasieta eta Mari Asun Muxika, Antzuolako herri ikastetxean. NAROA ODRIOZOLA

Mari Asun Muxika eta Eugenio Sasieta > Irakasleak

# "Ikasleen inplikazioa bilatzen dugu euren interesetan oinarritutako hezkuntzan"

NAROA ODRIOZOLA > ANTZUOLA

**Mari Asun Muxika eta Eugenio Sasieta Antzuolako herri ikastetxeko irakasleak dira. Urte asko daramatzate ikasleen interesetan oinarritutako hezkuntzaren inguruan lanean. Eguenean horren gaineko hitzaldia egin zuten Eskoriatzan.**

**Zeintzuk dira ikasleen interesak?**

Eugenio Sasieta: Mundua ulertzeko desioak izaten dituzte, eta hor sar dezakezun guztia: albisteak, gizartean gertatzen diren gauzak, historiarekin zerikusia duten gauzak…

Mari Asun Muxika: Interes batzuk adinarekin lotuak daude. Txikitan gertu dauden gauzak dira interesguneak. Hau da, geure gorputza, gizakion jatorria… baina urteek aurrera egin ahala zabaltzen doaz.

**Nolakoa da ikasleen interesetan oinarritutako hezkuntza?**

E.S.: Lehendabizi, ikasleen protagonismoak hartzen duen garrantzia ardatz inportante bat da. Ingurua aztertu behar dutenak eurak dira eta protagonismo itzela hartzen dute, ez bakarrik desioak ateratzen, baizik eta ezagutu nahi dituzten errealitate horiek aztertzen ere. Azken hori egitean, erronkekin topo egiten dute eta horiei erantzuten protagonismo handia dute.

Beste atal garrantzitsu bat komunikazioa da. Gela giza talde baten moduan hartu behar da eta oso inportantea da zer pentsatzen duen jakitea.

Hirugarren ezaugarri nagusia egiten den horren zergatia izango litzateke. Gu lan baten hasten gara eta horrek beste lan batera eramaten gaitu. Prozesuak sortzen dira.

**"Ikasleen protagonismoa, komunikazioa eta egiten denaren zergatia dira ardatzak"**

**"Sufrimendurik gabeko ikasteko modurik zegoen ikertzen hasi ginen"**

**Zergatik ikusi duzue beharrezkoa ikasleen interesetan oinarritutako hezkuntza?**

E.S.: Badira urteak honetan gabiltzana. Hasi ginenean porrota zen nagusi. Eskolak ez zuen erantzuten. Batzuk ondo zihoazen, baina beste asko gaizki. Eskolan sufritu egin genuen eta irakasle moduan ikertzeko beharra izan genuen, ea sufrimendurik gabeko ikasteko modurik bazegoen jakiteko. Disfrutatzen ikasiz.

**Zein da zuen helburua?**

E.S.: Interesik eza duten umeek, interesa hartzen joan daitezen zer egin jakin nahi dugu. Umeen inplikazioa bilatzen dugu. Lehen hori jeneralagoa zen eta orain puntualagoa da. Jada ez da klase erdi, ume bakar bat izan ohi da.

M.M.: Haur Hezkuntzan errazago sartzen da Lehen Hezkuntzan baino. Lehen Hezkuntzan, hirugarren mailatik gora gehiago kostatzen da.

**Batxilerrean eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ez da hain erraza izango, ezta?**

E.S.: Interesa jakin-minak sortzen du eta jakin-minaren partaide banaiz jokatu egiten dut eta horrek erakarri egiten nau. Hori da zientzialariei gertatzen zaiena, eta umeekin gauza bera gertatzen da. Egoera batzuetan entusiasmatu egiten dira; beste batzuetan, ordea, ez. Baina umeei geldik egotea ez zaie gustatzen eta txikitatik hasten dira gauzak ukitzen, jolasten…

M.M.: Gertatzen dena da hori moztu egiten dela. Adin batera heltzean mahai baten aurrean jartzen dituzu.

**Gurasoek zer egin dezakete interes hori sortzeko?**

M.M.: Ahal denean, aktiboki hartzen dute parte.

E.: Alde batetik, gurasoek etxean umeekin duten jokaera dago; umeak inplikatzen dituzten, galderei erantzuten dieten… Etxeari tokatzen zaion dinamika. Gero, eskolari tokatzen zaion zatia dago eta hor eskolaren eta gurasoen arteko harremana sustatu behar da.

Aurrekoan irratian entzun nuen gauza kurioso bat: ume batek hegazkinak nola eusten diren galdetu zion bere aitari eta hark barre egin zuen. Horrela, umea isilarazi egin zuen, pentsatu zuelako ez zela galdera inportantea. Ondoren irrati esatariak adierazi zuen: "Hala bihurtu gara tonto beste guztiok".

**Eredu honetan lan egiten duen beste ikastetxerik badago?**

M.M.: Hilean behin bailarako hainbat eskola biltzen gara honetaz hitz egiteko. Egueneko hitzaldia, adibidez, Eskoriatzako irakasleek eskatuta egin genuen. Urte batzuk daramate modu honetan lanean eta joateko eskatu ziguten ikusteko beste batzuk ere ari garela horrela lanean eta ikasleek emaitza onak dituztela.

etxeko leihotik



Ubane Madera > arrasate@goiena.com

## Hego haizearen zurrunbiloan bueltaka

Hego haizea, Haize epel eta gozoa. Udazkenaren ikur, udaberri eta udan ere gurean egoten dena sarri. Ebro aldetik gora, Espainia eta Afrika aldetik heldu den haize zakar beroa da hego haizea, bazterrak erraz lehortzen dituena.

Hego haizeari Ero haizea, Zoro haizea ere esaten zaio; baita Andre haizea eta Sorgin haizea ere. Hego haizearen izaera Haize errea da. Erreferentzia astronomikoari begiratzen badiogu, berriz, Eguzki haizea izena aurkituko dugu. Hegoi (Egoi) da euskal mitologian hartzen duen izena. Mitologia grekoan Noto esaten diote, eta erromatarrek, berriz, Austro, siroko ezagunaren pertsonifikazioa.

**"Hego haizeak makinatxo bat izen ditu: Andre haizea, Sorgin haizea…"**

Hego haizea zurrunbiloan dator sarri, eta legenda batzuen arabera, Infernuko atea zabaltzen denean dator, infernuan bekataria sartu den seinale.

Bada, hego haizearen zurrunbilo izaera horrek ematen dio, duda barik, fama txarra. Andre haize izena ipintzea ere nahikoa esanguratsua ere bada…

Eguaztenean lanetik etxera nindoala irribarrez nengoela jabetu nintzen, irribarrez eta pozik. Aldiz, lanetik nekaneka eginda nentorren, eta ez neukan ba pozerako arrazoi berezirik… ala bai? Ba ez. Hego haizearen eragina izan zen. Izugarri gustatzen zait niri, bizipoza ematen dit, eta zuekin konpartitu gura nuen hori, gure irakurleekin.

**> Egurra lurrean josteko Hegoia ona da; horixe diote halako zereginetako adituek: "josi hegoiakin ondo ta haura geratukok haintxe, jo-ta geratzen dok, ondo"; halaxe zion Sebastian Aranak Goimendi auzoko Arraotz baserrikoak (Elgeta, 1916)**

**> Eguraldiak eragin handia dauka gizakiarengan; adibiderik garbiena Ilargia da; gizakiak lurrarekin harreman zuzena zuenean Ilargiaren arabera antolatzen zituen lanak, egutegia… asteko euskarazko izenek erakusten duten moduan.**

ARKEOLOGIA > LEZETXIKI

## Hil bukaeran hasiko dituzte Lezetxikiko indusketak

Bi aste barru iritsiko dira ikasleak Lezetxikira indusketa lanak hasteko

N.O. > ARRASATE

Ekainaren 28an joango dira ikasleak Lezetxikira indusketa lanei hasiera emateko. Hala ere, oraindik itxi gabe dago ikasleen zerrenda. Izan ere, azkeneko momentura arte ez dute jakin indusketak egin behar ziren edo ez.

Aurreko astean, Aranzadiko arkeologo eta Lezetxikiko indusketen arduradun Alvaro Arrizabalaga Arrasate irratian izan zen, eta, besteak beste, jendearen kontzientziazioaz hitz egin zuen. "Kontzientzia handiagoa dago gure ingurunetik kanpo dauden aztarnategien eta baliabide arkeologiko horiek duten garrantzi ekologikoaren inguruan, gure esparruan daudenak baino". Arrizabalagaren esanetan, jendeak ikasgai pendiente bat du: konturatzea bertan dagoela guztiona den ondare garrantzitsua.




**Arantzazu Ezkibel,** Goiena Telebistako kazetaria, Azkaraten zubisaltoa egin ondoren.

# Egin dugu salto

**Digitalera salto egin dugu:**

> DEBAGOIENA OSOAN

Goiena Telebista dagoeneko digitalean:
ARAMAION , ANTZUOLAN, ELGETAN, OÑATIN,
BERGARAN, ARETXABALETAN, ESKORIATZAN,
ARRASATEN ETA LEINTZ GATZAGAN.

Goitb
Goiena Telebista

***Ikustekoa!***

**HEZKUNTZA** > PROTESTAK

# Eskola publikoetako zuzendariak haserre eta dimititzeko gertu

Gipuzkoako eskola publikoetako zuzendariek idatzi bat egin dute; gurean bat egin dute Oñati, Antzuola, Aretxabaleta eta Eskoriatzakek

**ARANTZAZU EZKIBEL** > BERGARA

Eskola publikoetan haserre daude datorren urteari begira hezkuntza sailak egin behar dituen aldaketen aurrean. Haserrea adierazteko Gipuzkoako eskola publikoetako hainbat zuzendarik, "eskoletako komunitatearen erantzule gisa", idatzi bat bidali diote hezkuntza sailari baldintza minimo batzuk eskatuz; eta adierazi dute baldintza horiek bete ezean dimititu egingo dutela.

Gurean idatzi horrekin bat egin duten zuzendariak hauek izan dira: Oñatiko Errekalde Herri eskolakoa, Antzuolako Herri ikastetxekoa, Aretxabaleta Kurtzebarri eskolakoa eta Eskoriatza eta Gatzagako Luis Ezeiza herri eskolakoa. Bergarako Ikastetxe publikoko zuzendariak ez du sinatu idatzia, eta Arrasateko Herri eskolako zuzendariak ez digu erantzun gura izan. Elgetako eskolan asteon erabakiko dute.



Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolako umeak eta irakaslea. A.E.

**GELA GEHIAGO**

Zuzendariek egindako idatzian diote Gipuzkoako 45 ikastetxeetako datuak bildu ondoren, 18 gela gehiago izango dituztela 2010-2011 ikasturtean, eta, ostera, 97 irakasle gutxiago. Diote krisian gaudela, baina zerbitzu publikoek, eta are gutxiago eskola publikoak, ez dutela krisi hau sortu.

Gurean, Eskoriatzako Luis Ezeiza eskolako zuzendari Arrate Landak esan digu: "Lan zerrenden proposamena jaso dugu eta iaz baino gela bat gehiago izanda bi irakasle eta erdi gutxiago izango dugu. Horrek proiektu guztiak kolokan jartzen ditu!".

ESANAK

**"Eskola publikoaren hezkuntza kalitatea da defendatu gura duguna, ikasleek kalitatezko hezkuntza jaso dezaten"**

**Arrate Landa** > Luis Ezeiza

Gaineratu du: "Borroka hau ez da gure lan baldintzak hobetzeko edo gure lan baldintzen alde. Garrantzitsuena da gure ikasleek ezin izango dutela kalitatezko hezkuntza jaso. Eskola publikoaren hezkuntza kalitatea da defendatu gura duguna".

Egubakoitzean Hezkuntza sailarekin bilera egitekoak ziren zuzendariak; baina, lan zerrenda berriak jaso barik zituztenez, bilera atzeratu egin zuten eta gaur egingo dute.

**ELKARTASUNA** > PRESOAK

## Jose Luis Elkororen aldeko plataformak etzi egingo du hirugarren batzarra

Hainbat gai landuko dituzte eguaztenean; besteak beste, plataforma legalizatzeko ze pauso eman behar dituzten

**A.E.** > BERGARA

Euskal preso bergararraren aldeko plataformak etzi, eguaztena, egingo du asanblada. Bergarako udaletxeko pleno aretoan izango da, 19:00etan.

Deialdi zabala da, herritar guztiei irekita dago. Orain arte plataformak egin dituen ekintzen gaineko balorazio positiboa egin dute. Hala ere, etzi egingo duten asanbladan orain arte egon diren akatsak eta hutsuneak aztertuko dituzte datozenak hobeto egiteko asmoarekin.

Asanblada lan taldetan banatuta dago: kultura, diruzaintza, ekintza berriak, komunikazioa, alderdi legalak, talde eragilea... "Talde bakoitzaren iritzi eta proposamenak entzun ondoren, hori guztia nola koordinatu izango da asanbladan landuko dugun beste gai bat", azaldu dute *Jose Luis Elkoro Libre* plataformako kideek. Gainera, plataformaren legalizazioaz ere jardungo dute: zergatik, noiz eta nola egingo den.

**JOSE LUIS LIBRE**

Plataformako kideek gaineratu dute: "Ezin dugu ahaztu gure helburua Jose Luis libre ikustea dela eta hori lortzea oso zaila dela".

San Martzial bezperarako bizikleta martxa herrikoia antolatzea da plataformak aurrera begira duen asmoetariko bat.

Abantailaz betetako kluba!
Goiena kluba
EKAINEKO ZOZKETA
Telefonoa: 943 25 05 05
e-posta: *kluba@goiena.com*
Kuota: 45 euro

REALEKO GORRO ETA BUFANDA
Bidali KLUBA GORROA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

REALEKO MOTXILA
Bidali KLUBA MOTXILA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.

MUNDUMIRAKO MATERIALA
Bidali KLUBA MUNDUMIRA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Mundumira

UMEENTZAKO PUZZLEA
Bidali KLUBA PUZZLEA [Bazkidearen zenbakia] 5195 zkra.
Ikastolen Elkartea

SARI NAGUSIA
APIRILA-EKAINA
PARTE-HARTZAILE GUZTIEN ARTEAN ZOZKETATUKO DA
GAU BAT TXOPEBENTA LANDETXEAN
• Tel. 94 625 49 23 / 629 45 50 79
• Basetxeta Auzoa. Gautegiz-Arteaga (Bizkaia)
• *www.nekatur.net/txopebenta*
• *www.toprural.com*
Maiatzean 20 urte beteko ditugu; Estatuko lehenengoak izan ginen.

SMSaren kostua: 0,15 euro + BEZa mezu bakoitzeko.
Indarrean dagoen LOPD 15/1999 legearen arabera, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak Goiena Komunikazio Zerbitzuaren fitxategi automatizatu baten sartuko direla. Datu-bilketa honen helburu bakarra da indarrean dagoen sustapena gestionatzea. Eskubidea izango duzu datuotan sartzeko, haiek zuzentzeko edo ezeztatzeko, helbide honetara idatzita: *kluba@goiena.com*

Baketik-ek eta Tau Fundazioak antolatuta, *Arantzazu, Afrikarekiko elkargune* astea egin dute egunotan Arantzazun. Zapatuan amaitu zituzten jardunaldiok. Aurtengoa IV. jardunaldia izan da, eta aprobetxatu dute aukera Afrikako independentzien 50. urteurrena ospatzeko. Aztertu dute Laku Handien eskualdea: Kongo, Ruanda, Burundi eta Uganda.

**Mbuyi Kabunda** > Nazioarteko Harremanetan irakaslea

# "Iparraldeko herrialdeek interes ekonomiko handiak dituzte Afrikan"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

**Herrialde horien iragana, oraina eta etorkizuna aztertu dute Arantzazun. Mbuyi Kabunda izan da jardunaldion zuzendaria, Nazioarteko Harremanetan Madrilgo Unibertsitate Autonomoan irakaslea. Harekin izan gara egoeraz berbetan.**




Mbuyi Kabunda, Arantzazun Baketik-ek duen egoitzan. A.E.

**Afrikako independentzien 50. urteurrena aprobetxatu duzue Laku Handien eskualdeaz jarduteko.**

1960. urtean Afrikako herrialde askok independentzia lortu zuten. Aukera aprobetxatu dugu urte hauen guztien balantzea egiteko, baina, Afrika oso handia denez, laku handietan zentratzea erabaki dugu (Victoria, Tanganyika, Kivu...).

**Zergatik laku handien eskualdea?**

Eskualde zigortuena izan delako. Azkeneko 15 urteetan genozidio handiak gertatu dira han: 1994an, adibidez, Ruandan; eta ondoren, hiru gatazka Kongoko Errepublika Demokratikoan. Hamar milioi lagun baino gehiago hil dira gatazketan.

**Zeintzuk dira gatazka hauen ezaugarriak?**

Gatazka ulertzeko historia jakitea ezinbestekoa da. Horregatik, garai ezberdinak aztertu ditugu: kolonialismo aurreko garaia, garai koloniala eta kolonialismo ondorengo garaia.

Lehenengo aztertu duguna izan da zelan sortu zen protokontzientzia etnikoa. Batez ere, Ruanda eta Burundiko monarkietan egon zen protokontzientzia hori; ondoren, kolonizatzaile aleman eta belgikarrek hartu zuten.

**Gero, arrazakeria zientifikoa bilakatu zen.**

Bai; tutsiak eta hutuak banatu zituzten. Tutsiak nobleak izango lirateke, zuriak azal beltzarekin; hutuak, ostera, nekazariak. Bestalde, twa herri pigmeoa dago, hango natiboak direnak.

Kolonialismo aurreko garaian tribu malguak ziren; baina kolonialismo garaian gatazka sortu zen euren artean. Botere ekonomikoa eta politikoa zegoen gatazka horren atzean.

**Gaur egun zein da eskualde horien egoera?**

Ruandako genozidioa Kongoko Errepublika Demokratikora hedatu zen. Lehen esan bezala, hiru gatazka izan dituzte Kongon, eta azkena 2010eko urtarrilean amaitu zen. Hala ere, gatazka horien ondorioak jasaten dabiltza oraindik. Kongoko, Ugandako, Burundiko eta Ruandako gobernuak bake elkarrizketatan dabiltza gaur egun.

**Zelan ikusten duzu etorkizuna?**

Nik nahiko beltz ikusten dut. Kontuan hartu behar da Laku Handien eskualdea oso gune estrategikoa dela. Afrika iparraldea eta hegoaldea banatzen ditu; baita hegoaldea eta ekialdea ere.

Nahikoa da herrialde baten etnia arazoak izatea, beste herrialde guztietara segituan zabaltzeko. Horregatik diot beldurra dudala. Aurretik izan ditugun gatazken oinarriak ez dira konpondu; hortaz, edozein momentutan beste gatazka bat sortzeko aukera dago. Gainera, hurrengo hilabeteetan hauteskundeak izango dituzte: Burundin, adibidez, ekainean dituzte; Ruandan abuztuan; eta datorren urtean Kongon.

ETORKIZUNA

**"Geroa nahiko beltz ikusten dut, gatazkaren oinarriak ez direlako konpondu"**

BEHARRAK

**"Ehun soziala eta gizatiarra sortzea da lehendabiziko beharra herrialde horietan"**

ESTATUAK

**"Berregituratu egin behar dira, kolonialak direlako eta kriminalen esku daudelako"**

**Zeintzuk dira herrialde horien lehentasunak?**

Baliabide naturalak –kobrea, diamanteak...– dira ingurune hartako gatazkaren erregaiak Nazio Batuen arabera. Ez dut esan nahi gatazkaren kausa direnik, baina bai erregaiak.

Taldeek baliabide horiek erabiltzen dituzte autofinantzatzeko; eta baita buruzagiek euren buruak aberasteko ere. Horiei deitzen diegu *Gerrako jauntxoak*.

**Nazioarteko komunitatearen erantzuna zein izan da?**

Ez da erantzunik egon; kontuan hartu behar da iparraldeko enpresa askok interesak dituztela han. Esaerak dio: *Afrika desordenatuta negozio ona da*.

**Zeintzuk dira Laku Handietan dauden herrialdeen beharrak?**

Ehun soziala eta gizatiarra birsortzea da lehendabiziko beharra. Gatazka horietan haur soldaduak erabili dira, eta sexualki bortxatu izan da arma gatazka bezala. Gizartea deuseztatu diete, eta baita etorkizuna ere.

Hezkuntzari eman behar zaio garrantzia; gazteek ikasketekin etorkizuna izateko aukera izan dezaten, eta baita diskurtso populistetan sar ez daitezen.

Gainera, nekazaritza indartu egin behar da. Elikagaien subiranotasuna lortu behar da, eta horrela lanpostuak sortu. Esportaziori lehentasuna eman beharrean, autokontsumoari eman beharko genioke.

**Estatuak eurak ere aldatu egin beharko dira.**

Estatuak berregituratu egin beharko dira. Gaur egun, estatu kolonialak dira, kolonialismo garaiko egitura bera dutenak; eta, gainera, kriminalen esku daude. Ez dituzte aintzat hartzen giza eskubideak.

Deszentralizatu egin beharko dira eta konfederazio forma hartu. Estatuek herriengana hurbildu behar dute; izan ere, hori da duten eskasia demokratikoa.




# Debagoiendarrak Anoetan Realarekin

**HARMAILATIK SAIO BEREZIA**
Astelehena: 22:15ean
Asteartea: 15:10ean eta 20:45ean
**Xabier Urtzelaik aurkeztuta**

**BABESLEA:** URBIETA zeramikak eta bainuak

Goitb
Goiena Telebista
*Ikustekoa!*

**kale inkesta**

# Gastuak gutxitzeko, Grezian udalerri kopurua murriztuko dute. Onartuko zenuke hori gurean?



**Antton Agirregomezkorta**
Langilea
Aramaio

Ez litzaidake gustatuko hemen horrelako neurririk hartzea; gainera, ez dut ulertzen zein onura dakartzan. Batzuk diote hemen berdina gertatzen dela autonomia-erkidegoekin, gehiegi daudela, baina ez dut hori uste.



**Gemma Mendialdua**
Langilea
Aramaio

Ez nago ados Aramaio beste herri batzuekin elkartzearekin; Aramaio Aramaio izan behar da beti! Ez dut uste herrikideen artean ere onarpen handirik izango lukeenik. Beste neurri batzuk bilatu behar dira.



**Martin Arriolabengoa**
Ikaslea
Aramaio

Ez dut ikusten zein onura ekar ditzakeen herriak elkartzeak. Nire ustez, hemen neurri hau hartuko balitz, herri handien mesedetan izango litzateke; herri txikiak baztertuta geratuko liratekeela iruditzen zait.



**Jesus Mari Elejalde**
Langilea
Aramaio

Ez zait gaizki iruditzen, horrelako neurri batek lagunduko liguke denok elkartu eta batera krisiari aurre egiten. Dena den, uste dut herri bakoitzaren tradizioak-eta errespetatu egin beharko liratekeela.

**irakurlearen txokoa**

# 943 25 05 05

goienkaria@goiena.com

BERGARA

**> Bedoñako bidea egoera txarrean lanak direla eta**

Bergarako irakurle batek kexua helarazi digu erredakziora. Ezindua da, gurpildun aulkian dago eta Lurraldebus erabili behar duen bakoitzean bi egun lehenago jakinarazi behar duelako da kexu. Herritar horrek dio garraiobide publikoa den heinean ez duela zertan ibili telefonoz deitzen bidaiatu behar duela esateko. Arazo honen gainean dagokion lekuan kexatzeaz "aspertuta" dagoela ere badio, eta galdera bat ere planteatzen du: "Zer egin behar dut arazo honekin?".

ARRASATE

**> Bizikletan ibiltzeko erraztasunak**

Bizikletan ibiltzeko ohitura duen gazte baten e-maila jaso dugu. Haren ustean, orokorrean, txirrinduzaleei aukera gehiago ematea botatzen du faltan ibarrean, Debagoienean. Esaterako, bizikletak aparkatuta, lotuta uzteko toki gehiago egon behar liratekeela uste du, bestela jendeak edozein lekutan lagatzen dituelako bizikletok. Gaiarekiko sentsibilitate apur bat gehiago eskatu nahi die erakundeei.

BERGARA

**> Igerilekuen ordutegia**

Emakume batek deitu digu, esanez azken ASTELEHENEKO GOIENKARIAn ibarreko igerilekuen ordutegien berri izan zuela, eta ea zergatik den Bergarakoa azkena zabaltzen eta lehena

**usteak uste**

**Edu Mendibil**

# Vuvuzelarik ez Anoetan

Mexikoko munduko futbol txapelketak, Maradonaren erakustaldiaz aparte, olatuaren indarra ekarri zigun. Hugo Sanchezen *txilipurdixekin* batera, Mexikok futbolari egindako ekarpen nagusia izan daiteke olatuarena, 1986tik hona munduko futbol zelai guztietara zabaldu zena. Gauza ederra da bai zaleen mareak gora egiten duenean..., batez ere haizea eta itsasaldia zure taldearen aldeko direnean, atzo Anoetan bezala.

Realzaleek erakutsi dute bai badakitela taldea animatzen, babesten, laguntzen. Anoeta beste edozein zelai bezain beroa izan daitekeela, atletismo pistaren traba gaindiezina ez dela.

Badirudi hasi berri den Hego Afrikako mundialaren ekarpenetako bat vuvuzelak izango direla. Espero dezagun haien beharrik ez izatea Reala orain arte bezala laguntzeko. Primeran!

**zorroztailea**



**Markos Balentziaga**

# Lan merkatuaren azokan

"Patronalarekin eta sindikatuekin lan erreforma hitzartzeko negoziazioek porrot egin ondoren, alderdi politikoekin testua negoziatzen saiatuko da Espainiako gobernua [...]. Lan erreforma berriak malgutasun handiagoa emango die enpresei lan baldintzak eta lanaldia erabakitzeko"

BERRIA > 2010-06-11




Hillabete luzetan barriketan jardun ondoren, goi-mallako negoziaziño gehixen-gehixenetan egiten dan moduan, sindikatuak eta patronalak, eguenian, ostargi aldera erabagi zeben lan-merkatuaren gañeko tratuari argirik ez emotia.

Hortik aurrera Rodriguezen gobernuak dekretuz barrittuko dau lan-merkatua. Eta ez dudarik egin: dekretu oso-oso-oso orekatua izango da Europak, patronalak eta "merkatuak" izeneko "negoziante" musu bako aurpegidun horrek nahi dabenen alde. Hauxe da motz-motzian joan dan eguenera arte Españako lanferixiak emondakua.

Negoziaziñuak otsaillian hasi ziranian, artian, inor askoren goguan ez zan "negoziante" bat agertu da baña, orain-oraintxe, ferixara: honek be ez dau aurpegi faltarik, eta, gañera, erakutsi egitten dau lotsa bape be barik: Munduko Futbol-Txapelketia da "negoziante" hori eta, bertan, Españako selekziñuak Txapelketia bera irabazteko ei daben superaukeria.

> **"Sindikatuek esan zeben lan merkatuaren eraberritzia dekretuz egiten bada huelga orokorra deittuko dabela... noiz, baiña, deittu?"**

Sindikatuek esan zeben lan-merkatuaren eraberritzia dekretuz egiten bada huelga orokorra deittuko dabela... Noiz, baña, deittu? Futbol-Mundialak dirauan bittartian? Uztaillian? Abuztuan? Uda-udan, orain arte funtzionarixuen artian edota Correoseko langillien artian deittutako lanuztiak zer indar izan daben ikusitta? Udazkenera arte laga? Orduarako dekretua uste baño asentauago egongo da, bidia uste baño egiñagua izango dau.

Udazkenian, dana dala, istillurik sortzen bada, langillien defentsan, titiritero xalau-xalauak eurak, PPkuak ez dabe kale eingo, saltsa-maltsairen ferixan. Gauzak hola, azoka-joko honetan, ez litzake onena Españako selekziñua eliminauta lagako balebe? –eta zenbat eta lehenago, hobe— Era horretan jendiaren miña eta protestarako griña izango litzake fin-fiña...

Datorren udazkenian, huelga orokor hori gorabehera, Rodriguezen gobernuak ez dittu gauzak errez izango, ez, baña orain daguan baño estuago be ez da egongo eta lan-merkatua arautzen daben dekretua indarraren betian izango da.

Goienkaria
Argitaratzailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkartea • E05 Basabe Poligonooa • 20550 ARETXABALETA
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi
Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Monika Belastegi
Asteburuko erredakzioaren arduraduna Xabier Urtzelai Erredakzioa Nerea Menor, Txomin Madina, Edu Mendibil Oinarrizko diseinua Goio Arana Diseinu arduraduna Iñaki Iturbe Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain
EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Ibarra kalea 6 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com
ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otalora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 00
Posta-e: arrasate@goiena.com
ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com
Publizitatea Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com
Harpidetza Aretxabaleta 20550 E05 Basabe Poligonoa • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com
Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale • Difusioa: 4.383 ale
Goiena Komunikazio Zerbitzuak

ASTELEHENEKO GOIENKARIAk ez du bere gain hartzen IRITZIA orrialdean edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria
Gipuzkoako Foru Aldundia

EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza
Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak diruz lagundutako aldizkaria



**> ARRASATE**
Langabezia jaitsi arren bikoiztu egin dira diru sarrerak bermatzeko laguntza eskaerak **> 14**



**> BERGARA**
Uztaileko udaleku irekietan bi eta hamabi urte arteko 300 haur ibiliko dira **> 16**



**> OÑATI**
Berrikuntzetarako eta materiala erosteko 66.000 euro pasa jaso ditu musika eskolak **> 18**

**OÑATI** > JENDARTEA

# Gure Txokok, kaleko elkarterik zaharrenak, 75. urteurrena bete du

**GURE TXOKO**
Zubillagako elkartearen ondoren, Oñatiko elkarterik zaharrena da

**50 LAGUN**
Osasun onean dago elkartea: 50 bazkide dira, horietatik hiru emakumeak



Iñaxio Gereta, Angel Mari Biain, Juan Antonio Txintxurreta *Mardo*, Kote Balzategi eta Ignacio Etxeberria *Txato*, Araotz-Lazarragako harmarria atzean dutela. E.M.

**EDU MENDIBIL** > OÑATI

Oñatiko Patrue Kalen dagoen Gure Txoko elkarteak 75 urte bete berri ditu. Hain zuzen ere, joan den maiatzaren 27an bete ziren 75 urte Oñatiko lagun talde batek elkartea sortu zuenetik. Iñaxio Gereta da Gure Txokoko presidentea gaur; eta haren aitona, Edmundo Gereta, izan zen sortzaileetariko bat; "1935eko maiatzean, aitonak eta beste lau lagunek bidaia egin zuten Sevillara, hamabost bat egunerako, hango Aste Santua ezagutzera. Eta liluratuta itzuli ziren hango giroaz eta Sevillan ikusi zituzten *kasetekin*, elkarte modukoekin. Oñatira bueltan Gure Txoko sortu zuten, gaur egungo egoitza berean, Patrue Kaleko 2. zenbakian. Zubillagako elkartearen ondoren, Oñatiko elkarterik zaharrena da Gure Txoko".

Estatutuetan jasotakoari zintzo jarraituz, 50 bazkide dira Gure Txokon. Azken bi urteotan hamar bazkide berri iritsi dira elkartera. Eta iaztik emakumeek ere badute aukera Gure Txokoko bazkide izateko; hiru dira oraingoz emakume bazkideak. Angel Mari Biain diruzainak emandako datuen arabera, bazkide gehienak 50-60 urte bitartekoak dira; zaharrenak, bazkide beteranoenak Jose Mari Altuna, Felix Altuna eta Felix Agirre ditugu.

**ERAIKIN HISTORIKOA**

Elkarte historikoa izanik, egoitza ere ez da nolanahikoa. Patrue kale etxean izenarekin ezagutzen da eraikina eta harro-harro erakusten du Araotz-Lizarraga familiaren armarria. Bere garaian Loiolako San Inazio (1491-1556) bertan lo egin zuela ere entzun genion bizilagun bati egubakoitzean eta berehala hasi zen eztabaida han batutakoen artean.

Gure Txoko elkartearen armarrian, berriz, Oñatiko armarritik hartutako oreina eta arranoa azaltzen dira. Biainen hitzetan, "Oñatiko armarriko irudietako baten arranoa oreinari erasoka azaltzen da eta gure elkarteko irudian, berriz, biak elkarrekin ageri dira, ura edaten. Nahiko bitxia da. Nik uste dut nolabaiteko armonia irudikatu nahi izan zuela egileak". Tabernan, barraren goialdean ikus daiteke aipatutako armarria.

## Getariara irteera zapatuan eta Akonkaguari buruzko Borja Azpeitiaren emanaldia

Gure Txoko elkarteak hainbat ekitaldi egingo ditu 75. urteurrena ospatzeko. Zapatuan, ekainaren 19an, Getariara irteera egingo dute. Elkartean bertan hamarretakoa egin ondoren, 11:00etan aterako dira autobusez kostalde aldera eta txakolindegi bat bisitatuko dute. Bazkaria, berriz, Getarian egingo dute. Izena emateko epea martitzenera arte, ekainaren 15era arte dago zabalik. Bestalde, Borja Azpeitia Gure Txokoko bazkideak Akonkaguako tontorrera (6.959 m.) iritsi zen joan den otsailean eta espedizio haren gaineko argazki emanaldia ere antolatuko dute datozen asteotan. Alboko argazkian ikus dezakezuenez, elkartearen ikurriña eraman zuen Borja Azpeitiak Amerikako tontor altuenera. Eta elkarteko zuzendaritzak aurreratu duenez, uztailaren 17an mus txapelketa antolatzeko asmoa daukate. Oraingoz horiek dira iragarritako ekitaldiak baina ez dute baztertzen sorpresaren bat edo beste izatea.




Borja Azpeitia Akonkaguan, Gure Txoko elkarteko ikurriñarekin. GUTE TXOKO

**ELGETA** > KOADRILEN EGUNA

# Euriak markatutako jaia izan zen zapatuko Koadrilen Eguna



Bederatzi izan ziren gisatua prestatzeko duten abilezia erakutsi zuten koadrilak. JULIO CALLEJA

## Gisatu lehiaketan, Iñigo Azkarragak egindakoa izan zen epaileentzat onena

**TXOMIN MADINA** > ELGETA

Elgetako Koadrilen Egunak gonbidapenik gabeko gonbidatua izan du aurten: euria. Honek baina, ez zuen festa zapuztu eta hala, adin guztietako koadrilak kalera irten ziren eguna ospatzera.

**LEKU ALDAKETAK**

Euriaren ondorioz hainbat ekitaldik lekuz aldatu behar izan zuten. Salbador kalean jartzekoak ziren puzgarriak, frontoian jarri zituzten. Horrek baina, ez zuen eragotzi neska-mutikoek ederki asko pasa izana.

Gisatu lehiaketa udaletxeko arkupetan egin zuten eta bederatzi izan ziren parte-hartzaileak. Azkenean Iñigo Azkarragak prestatutakoa izan zen onena; bigarrenak Gloria Barrero eta Jose Antonio Ojanguren izan ziren eta hirugarrenak, 90210 koadrila. Irabazi ala ez, gisatuekin bazkaria egin zuten koadrilek eta ondoren, dantzaldia egon zen Espaloian Arrabots taldearekin. Nabari izan zen gainera hainbat elgetarrek dantza ikastaroa izan zutela astean zehar, eta fin asko ibili ziren.

**GAZTETXEAREN GARAGARDO JAIA**

Zapatuan bertan, gaztetxeak garagardo jaia egin zuen; arratsalderako antolatutako areto futbol txapelketa baina, bertan behera geratu zen euriagatik. Gaueko kontzertuetan, bestalde, giro ederra egon zen.

**BERGARA** > 'DIARIO DE UN CONQUISTADOR' LIBURUAREN AURKEZPENA

# Jende ugari Gotzon Mantuliz noiz agertuko zain



Bi ordu inguru eman zituen Gotzon Mantulizek sinatzen, batzuk posterrak eraman zizkioten. N.M.

**NEREA MENOR** > BERGARA

Ikusmin handia sortu zuen Gotzon Mantulizek Bergaran. *El Conquistador del fin del mundo*-ko iazko irabazleak egubakoitzean bere liburua aurkeztu zuen herrian, gaztetxoz inguratuta.

Bi ordu itxaron behar izan zuen batek baino gehiagok baina merezi izan zuen. Azkenean denak irten ziren sinadura batekin, liburuarekin edota bi muxuekin. "Onena da", "zelako guapoa" entzuten zen uneoro Elkar denda kanpoan. Behin barruan denak urduri, konkistatzailearengana gerturatzeko momentua iristeko irrikan.

**POZIK HARRERAREKIN**

"Harrera oso ona jaso dut Bergaran", esan zigun Mantulizek. Benetan jator aritu zen jarraitzaileekin, pazientzia handia erakutsi zuen. "20:00ak arte egotekoak gara, baina behar den denbora guztia egongo naiz". Neska gazteren bat negarrez irten zen dendatik eta asko saltoka.

Arrasateko zoramena ez erre-pikatzeko taldetan sartu ziren egubakoitzean eta ez zen iskanbilarik sortu. "Kaosa izan zen Arrasatekoa. Dendako hesia itxi behar izan zuten eta okertu eta dena egin omen zuten", adierazi ziguten Elkarrekoek.



Aurkezpen osoan zehar irribarretsu egon zen, Gotzon Mantuliz. N.M.

IRITZIAK



**Jurdana, Helena eta Josune**
Bergara

"Ordubete zain egon gara atean baina lortu dugu bere sinadura: *Maitasunarekin, muxu bat*, horixe idatzi digu. Telebistako saioan bera genuen gustukoena, oso majoa izan da gurekin".



**Ariadna eta Ane**
Bergara

"Aurkezpena hasi baino bi ordu lehenago iritsi gara, 16:00etan. Lehenak izan gara. Oso mutiko majoa da, oso jatorra izan da gurekin. Bere liburua ekarri dugu eta sinatu digu bioi".



**Amaia, Zaloa eta Amaia**
Durango

"Hirugarrenekoz ikusi dugu Gotzon. Gasteizen eta Eibarren egon zenean bertan egon ginen eta eguaztenean Barakaldora joango gara. Dagoeneko ezagutzen gaitu, zelako jatorra den!".

**BERGARA** > GAZTETXEAREN 10.URTEURRENA

# Urteurrena ospatzeko leporaino bete zen Gaztetxea



Afarian uste baino jende gehiago batu zen; giro bikaina izan zuten. GOIENKARIA

**NEREA MENOR** > BERGARA

Gaztetxearen 10. urteurrena ospatzeko ekintzak hasi dira dagoeneko. Egubakoitza egun potentea izan zen. Asteburu jendetsua izan dute gaztetxean.

Antolatzaileak oso pozik daude jendearen erantzunarekin. "Egubakoitzeko poteoan jende asko izan zen eta geroko afarian baita. Gaztetxekoez gain herriko jendea eta kanpokoa ere etorri zen", adierazi digu Ander Bolibarrek. Angiolillo liburutegiaren inaugurazioa izan zen egubakoitzean eta ezagutzera hurbildu zirenei interesgarria iruditu zitzaien.

Kanpoko eszenatokia inauguratzeko asmoa zuten, baina euria zela-eta barruan jo behar izan zuten taldeek. Hala ere, Azkaiter Peloxek gitarra hartu eta kanpora irten zen abesti batzuk jotzera jende guztia atzetik zuela, "azkenean, beraz, inauguratu zen eszenatokia", adierazi digute gaztetxekoek.

**ASTEBURUAREN AMAIERA**

Zapatuan, Gorlara igo eta atseden hartu ondoren gaueko kontzertuak arrakastatsuak izan ziren. Asteburuari amaiera emateko mapucheen gaineko hitzaldia eta zinekluba egon ziren.

**BERGARA** > JARDUN IKASTURTEKO AMAIERAKO JAIA

# Ikasitakoa taula gainean erakutsi zuten Jardunekoek




Dantza taldea aterki eta guzti. GOIENKARIA



Trikiti taldeak ikasitakoa erakutsi zuten. GOIENKARIA

Egubakoitz arratsaldean zehar, antzeztuz eta dantzatuz ikasturtearen bukaera ospatu zuten ikasle eta irakasleek

**NEREA MENOR** > BERGARA

Urtean zehar askotariko ekintzak antolatzen ditu Jardun elkarteak. Bertan jolasean edo ikasten herriko gazte ugari aritzen dira. Bertso eskola eta trikiti eskola dute, baita dantza eskola eta euskara errefortzua ere.

Ikasturtean ikasitakoa erakustea gustuko dute ikasleek eta hori aitzaki hartuta egubakoitz arratsaldean batu ziren ikasle eta irakasleak ikasturte amaierako jaian.

Ordubete inguruko saioa izan zen. Umeek dantzatu eta antzeztu egin zuten. Gutzi hau irakasle, guraso eta lagunez inguratuta.Ikuslego zabala izan zuten nahiz eta eguraldi kaskar samarra egin. Bukatzeko gozokiak banatu zituzten.

Behin ikasturtea amaituta oporretaz gozatzeko aukera izango dute ikasleek uda pasa arte. "Ikasturte berria uda urrian hasiko da", adierazi digute Jardunekoek.

**20 URTE EUSKARA BULTZATZEN**

Inondik inora, berezia izan da ikasturte hau. Apirilean, jai borobil batekin ospatu zuen elkarteak urte hauetako ibilbidea. Musika eta dantza nagusi izan ziren ospakizunetan, baita lagun asko elkartu zituen bazkaria ere.



GOIENKARIA

**BERGARA** > MARIAREN LAGUNDIA

## Ikasturte bukaerako jaialdia

Atzo ospatu zuten Mariaren Lagundikoek ikasturte bukaerako jaia. 10:00etatik aurrera patioa bete zuten ikasle, irakasle eta lagunek.

Hainbat kirol proba eta jokoak ospatu ziren goizean zehar. Eguerdian, ohikoa den paella lehiaketarik ez, baina pintxo lehiaketa ospatu zuten gaztetxoek. Bukatzeko, sari banaketan, guztiek jaso zuten zerbait.



GOIENKARIA

**ARETXABALETA** > KURTZEBARRI

## Eskolaren eguna ospatu zuten

Zapatua egun handia izan zen Kurtzebarri herri eskolakoendako. Eskolako eguna ospatu zuten eskolan bertan, ikasle, guraso eta irakasleek. Goizean zehar altxorraren bila ibili ziren edota tarta onena prestatuz tarta lehiaketan. Gurasoek bolo txapelketa izan zuten. Arratsaldean, bazkariaren ondoren, puzgarriak eta dantzaldia izan zuten.

**EKONOMIA** > KRISIA ARRASATEN

# Bikoiztu egin dira diru sarrerak bermatzeko laguntza eskaerak

Langabezia kopurua jaitsi arren, langabe batzuen egoera larritu egin dela ikusi dute Gizarte Zerbitzuetan

INEMen azpimarratu dute, berriz, autonomo askoren egoera larritu izana atzeman dutela

**UBANE MADERA** > ARRASATE

Maiatzeko langabezia datuen arabera, Arrasaten jaitsi egin da langabe kopurua: 1.254 kontabilizatu zituzten maiatzean, apirilean baino 107 gutxiago. Datu positiboa da hori. Hala ere, herritar askok bizi duten errealitatea ez da horren positiboa.

**EGOERA EKONOMIKO LARRIA**

Arrasateko Udalean ere sumatu dute hori. Marga Garmendiak, Lanbideko Arrasateko arduradunak eta Enplegu Saileko teknikariak eman du datua: "Gure adierazlea da Gizarte Zerbitzuetara diru-sarrerak bermatzeko errenta eskatzera datozenak. 2008ko bukaeratik hona bikoiztu egin dira eskariak eta 2009ko lehen hiruhilekotik hona ere handitzen joan dira, langabezia datua ez moduan".

Batzuen egoera larritu egin den seinale da hori, udal teknikariaren esanetan: "Behera egin du langabeziak, eta pozgarria da, baina hona datozenen eskariak ez dira geratu. Horrek esan gura du langabe jarraitzen dutenen egoera ekonomikoa okertu egin dela: langabeziako prestazioak bukatu egin zaizkie eta jo behar izan dute Gizarte Zerbitzuetako prestazioetara".

DATUA

**1.500**

LANGABE

2009ko martxoa izan zen Arrasaten langabe gehien kontabilizatu zituzten hilabetea: 1.500 izan ziren orduan. Harrezkero, jaisten joan da, eta maiatzean 1.254 kontatu dituzte.

INEMen galdetuta, azpimarratu dute atzeman dutela autonomo asko dabilela larri. Bestelako prestazioen kasuan, berriz, lehenago ere ematen zirela halako egoerak gogora ekarri du Elena Mondragon arduradunak: "Egoera ekonomikoa ona zenean ere bazeuden lan egin barik Udal prestazioak eskuratu guran hona etortzen zirenak laguntza eske".

**INDUSTRIA GELDI**

Bestalde, beste datu kezkagarri bat ere sumatu dute Udalean: industria arloak geldi segitzen duela.

Lanbiden, behintzat, ez dute industria arloko eskaintza larregi jasotzen: "2008ko irailetik hurrengo sei hiletan eten bortitza izan zen, ez zen mugitzen lan eskaintzarik sektore batean ere ez. Hortik aurrera hasi zen zerbait mugitzen zerbitzu sektorean, eta hala jarraitzen du. Industrian ez da mugimendurik. Eta horrekhemen eragin oso nabarmena du, nagusiki herri eta eskualde industrialean bizi garelako".

**AHAL BADA, FORMAZIOA LANDU**

Hala, eta irtenbide magikorik ez dagoela azpimarratuta, Enplegu Sailera edo BAZen duten ordezkaritzara joatera animatu gura ditu udal teknikariak langabeak: "Lanaren bilaketan lagunduko diegu, nahiz eta ezin bermatu lanik lortuko dugunik. Baina ze aukera dauden ezagutu dezakete, eta baita ere, ze formazio aukerak egon daitezkeen. Izan ere, egoera horretan egon bitartean, norbere burua birziklatzeko denbora aprobetxa dezaten da gomendatzen diegun bide bat"

**HITZORDUA** > ZERU BEHAKETA

## Izarrak, iretargia, Saturno eta Dragoi izeneko konstelazioa ikusteko aukera ekainaren 18an

Ilatargi elkarteak egin du hitzordua, Mesedeetako ikastetxearen patioan

**U.M.** > ARRASATE

Zeru garbia lagun, iretargiaren kraterrak, Artizarra (Venus), Marte, Saturno, "Arrasaten denez Dragoi edo Herensuge izeneko konstelazioa", Cassiopeia, Vega, Virgo, Leo… konstelazioak ikusteko aukera izango dute, besteak beste, egubakoitzean, ekainaren 18an, Mesedeetako Amaren ikastetxearen patioan, 22:00etan hasita, Ilatargi elkartearen hitzorduarekin bat egiten dutenek: "Edozein joan ahal da", azpimarratu du Jabier Herrartek, Ilatargi elkarteko kideak. Eta aipatu du, baita ere, honako hauxe dela konstelazio jakin batzuk ikusteko urteko aukera bakarra, "izenak adierazten duen moduan, planetak izar artean mugitu eta ez daudelako beti leku berean".

Herrartek jakinarazi du hiru teleskopio eramango dituztela Mesedeetako patiora, zeruaren altxorrak ikusi gura dituztenen eskura ipintzeko, eta baita argidun erakusle laserra ere, azalpenak-eta ematen laguntzeko.



ARIZMENDI IKASTOLA

## Irailera arte agurtu dira Arizmendikoak

Irteera hezigarriaren bitartez agur esan diote 2009-2010 ikasturteari Arizmendi ikastolako ikasle gaztetxoenek. Uribarri-gunekoak eta Umezaintzakoak Gasteizko Txikiparken jolastu ziren lehenengo, eta gero, Araiako Nestle fabrikara bisita gidatua egin zuten. 60 bat lagunek parte hartu zuten txangoan. Edozelan ere, ikasturtea Arizmendiko guztiek bukatuko dute, ekainaren 18an batzuek eta ekainaren 22an Umezaintzakoek. Eta oraingo astean egingo dituzte agur jaialdiak, ikastetxeetan.



Iturbideko bizilagunak eta bisitariak dantzan, egueneko dantzaldian. U.M.

**NAGUSIAK** > ITURBIDE EGOITZA

## Nagusien Astearen ostean, danborrada Iturbiden

Ekainaren 23an, herriko jaiekin bat egin eta danborrada egingo dute nagusiek

**U.M.** > ARRASATE

Hilabete osoa daramate entseguak egiten Iturbide egoitzako egoiliarrek, sanjuanetako euren danborrada ondo atera dadin. Eguraldiak lagunduz gero, egoitzako terrazatik barreiatuko dituzte Sarriegiren doinuak; bestela, egoitzak beheko solairuan duen lokal berrian izango da, beti ere, San Juan bezperan.

**NAGUSIEN ASTEA**

Danborrada horrekin amaiera emango diote eurendako urteko hilabeterik bereziena denari: ekainari.

Hain justu, berezia da ekaina Iturbideko bizilagunendako, urteko ekitaldirik esanguratsuenak ekainean egiten dituztelako: urteko irteera (Getxon izan ziren oraingo asteko eguaztenean) eta Nagusien Astea. Azken horren harira, Amaia Umerez antolatzaile eta dinamizatzaileak kontatu du "jendeak parte hartu eta oso gustura" ibili direla Nagusien Astean. Halaxe zebiltzan, bai, joan den eguenean, Koldoren gidaritzapean egin zuten dantzaldian.

ZERBITZUAK > KIROLDEGIA

# Igerilekuaren sakonera txikitu, beste erabilera baterako

Barruko igerilekuetako obrak gaur hasiko dira; horrez gain, kiroldegiko egiturak sendotu eta kantxako sabaia aldatuko dute

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

Udako denboraldia gaur bertan hasiko da, eta, beraz, kanpoko igerilekuak gaur zabalduko dituzte. Hala, barruko igerilekuak itxita egongo direla aprobetxatuz, hainbat obrak egingo dituzte. Udaleko Obra Sailak jakinarazi duenez, igerileku horien iragazgaitasun arazoak konpondu eta igerileku handiaren sakonera txikitu egingo dute, besteak beste.

Hau da, igerileku handian instalazio hidraulikoa aldatu eta iragazki berriak jarriko dituzte. Barruko igerileku txikian orain dela gutxi egin zuten hori. Uda osoa iraungo dute lanek; lau hilabete eta erdiko epea zehaztu du Udalak.


Barruko igerileku handiko sakonera txikitu egingo dute; irudian, barruko igerilekuak egubakoitzean ateratako argazkian. J.B.

Hala ere, bestelako lanak ere egingo dituzte. Kiroldegian matxuratuta dauden zutabeak sendotuko dituzte eta saskibaloi eta areto futbol kantxako sabaia aldatu egingo dute. Horrez gain, konponketa txiki batzuk ere ez dira faltako: besteak beste, egoera txarrean dauden leiho batzuk konponduko dituzte.

**AZKEN IGERILEKUETARA EGOKITUZ**

Barruko igerileku handiaren sakonera txikitu egingo dute. 1977. urte ingurukoa da igerilekua eta Iratxe Aranburu Kirol teknikariak azaldu duenez, "nahiko zaharkituta" geratu da egun egiten diren igerilekuen aldean: "Lehen errendimendua lantzera zuzentzen zen kirola, ez zuen jarduera fisikoaren zentzurik, eta egun egiten diren igerilekuek sakonera txikia dute, jarduera fisikoa erraztu eta seguruagoak izan daitezen". Izan ere, oinak lurrean jartzeko aukerak seguruagoa egiten du igerilekua. Horrez gain, sakonera txikiagoak ur gutxiago esan gura du, eta beraz, ur eta gas kontsumoa murriztea da lanen beste helburuetako bat.

DATUA

**1,50**

**METRO INGURURA JAITSI**

Barruko igerilekuen sakonera, igerilekuaren zonaren arabera, 1,40 eta 1,60 metro ingurura jaitsiko dute. Egun, 1,80 eta 2 metroen artean dago sakonera. Aldaketa nabarmena, beraz.

OSPAKIZUNAK > MOTORRERO EGUNA 2010

# Motor hotsek Arrasate hartuko dute zapatuan, goi mailako ikuskizun eta guzti

Dani Carrillo motor espezialistaren 'stunt-show'-a izango da hirugarrenez ospatuko den Motorrero Eguneko ekitaldi aipagarriena

J.B. > ARRASATE

Batzuendako zarata, eta zerutik datorren doinu ezin atseginagoa besteendako: motor hotsek hartuko dute Arrasate zapatuan, hirugarrenez ospatuko den Motorrero Egunean. Egun osorako egitaraua prestatu dute eta Laubide plaza izango da motor eta motorzaleen topaleku. Edariak eta txerri saiheskiak ere egongo dira.

Haurrekin hasiko dute eguna, etorkizuneko motorzaleak bermatu guran. Hala, Seber Altube plazatik Laubideraino plastikozko motorren kalejira egingo dute, 12:00etan. Behin Laubide plazan, zenbait jolas egingo dituzte umeekin. Haurrak erakartzeko amua gozokiak izango dira.


Motorzaleak Laubidetik batera irteten, iaz, buelta bat emateko gertu. GOIENKARIA

**IBILBIDEA ETA IKUSKIZUNA**

Motorzaleek bost euro ordaindu beharko dute izenematea. Motorrak Laubide plazan erakusgai izan ostean, inguruko errepideetan ordu eta erdiko ibilbidea egingo dute bazkalostean; 16:00etan, hain zuzen. Beraz, 18:00 aldera bueltan izango dira Laubiden. Orduan, hainbat jolas egingo dituzte; Koldo Atxotegi antolakuntzako kideak adierazi duenez, *Geldoenenen lasterketa* edo motor trajea jantzita korrika lasterketa egingo dute. Finean, motorzaleen bilkuretan egin ohi diren jolas eta probak egingo dituzte.

Hala ere, 19:30ean helduko da eguneko une handiena: Dani Carrillo espezialista handiaren erakustaldia. Aprendizen Eskola atzealdean itxita dagoen errepidea aprobetxatuko dute Carrillok haren *stunt show*-a egin dezan. "Sekulako ikuskizuna" izango da, antolatzaileen esanetan. 45 minutu inguru iraungo duen erakustaldian, Carrillok denetariko akrobazia eta jauzi arriskutsuak egingo ditu.

Ikuskizunaren ostean The Dirty Brothers taldeak joko du Laubiden jarriko den agertoki txikian. Azkenik, zozketa egingo dute izena eman dutenen artean.

MODA > IKUSKIZUNA

# Herriko gazteak protagonista dituen desfilea zapatuan

Amaia Albes eta Ane Garai diseinatzaileen jantziak 3 aretoan izango dira ikusgai

J.B. > ARRASATE

Herriko gazteek egina, herriko gazteendako: moda ikuskizuna egongo da zapatuan 3 aretoan. Arrasateko Amaia Albes eta Ane Garai diseinatzaileek, Zuriñe Lopez eta Cristina Garcia makilatzaileen laguntzaz, moda ikuskizuna prestatu dute.

3 aretoan musika da ohiko eskaintza, eta, beraz, bestelako proposamen batez gozatzeko aukera egongo da zapatuan. Gainera, 3 aretoko pasarelan –egun horretarako ibiltokia muntatuko dute espresuki– ibiliko diren modeloak disenatzaile eta makilatzaileen lagun eta senitartekoak izango dira; 14 modelo, guztira. Etxean geratuko da ikuskizuna, beraz.

**ARROPA ETA OSAGARRIAK SALGAI**

Ez da ohiko desfile bat izango, ikuskizuna ere egingo dute. Antolatzaileek ez dute askorik aurreratu gura izan, baina gorputza margotuta *show*-a eskainiko dute batzuek. Ordu erdi inguru iraungo duen ikuskizunaren ostean, diseinatzaileek euren jantzi, osagarri eta bestelakoak salgai jarriko dituzte. Sarrera doakoa izango da.

Azkenik, Albesek jakinarazi duenez, zapatukoa azken desfilea ez izatea espero dute.

> LITERATURA SOLASALDIAK

## Iban Zalduaren 'Euskaldun guztion aberria' nobela berbagai izango dute eguaztenean Kulturaten

Arrasateko Udal Liburutegiak antolatzen dituen literatura solasaldien barruan, 2010eko lehen seihilekoko azken berbaldia egingo dute eguaztenean. Iban Zaldua idazle donostiarraren *Euskaldun guztion aberria* izeneko eleberriaren gainean jardungo dute literaturazaleek. Saioa 18:30ean hasi eta 20:30ean amaituko da. Alberdania argitaletxearekin atera zuen Zalduak azken nobela, eta, argitaletxekoen ustez, "eleberria gazia" da: "Lehen hitzetik harrapatzen zaitu; umoretsua da, baina irakurri ostean min egiten du".

Erdarazko solasaldiekin amaitzeko, bestalde, Jorge Luis Borges idazle argentinarraren *El Aleph* obraren gainean egingo dute berba; bihar, martitzena, 18:30etik 20:30era.

**JENDARTEA** > AISIALDIA

# Uztaileko udaleku irekietan 300 haur

Uztailaren 1ean hasi eta 23ra bitartean askotariko ekintzak egingo dituzte 2 urtetik hasi eta 12ra arteko neska-mutikoek


Umeak iazko udalekuetan, Usondo parkean. GOIENKARIA

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA
Geroago eta gertuago daude oporrak umeendako, eta, hori kontuan hartuta, uztaileko udaleku irekiak ere prest ditu Xipizaro ludotekak. Uztailaren 1ean hasiko dira eta 23an bukatu, eta 2 urtetik hasi eta 12ra arteko 300 ume ibiliko dira. Ordutegiari dagokionez, bi urtekoek 10:30-12:30 ordutegia izango dute eta gainontzekoek, 10:00-13:00 ordutegia.

Umeok adinaren araberako 29 taldetan banatuta egongo dira udalekuetan, taldeko hamar ume egongo dira eta talde bakoitzeko begirale bat arduratuko da umeez.

2 urteko umeen talde bat osatu da; Haur Hezkuntzako lehen mailako lau talde (39 ume); bigarren mailako bost talde (49 ume); eta hirugarren mailako sei talde (55 ume). Lehen Hezkuntzako lehen mailako lau talde osatu dira (40 ume); bigarren mailako bost talde (53 ume); hirugarren mailako hiru talde (33 ume); eta laugarren eta bosgarren mailetakoekin 11 gazteko talde bakarra osatu dute, Xipizaroko arduradunek azaldu dutenez.

Xipizarotik gehitu dutenez, 2 urteko umeak ludotekan egongo dira –Agorrosin Ekintza Gunean–, Haur Hezkuntzakoak Martinez de Irala ikastetxean eta Lehen Hezkuntzakoak, berriz, Ipintza institutuan. Hori horrela, guraso zein zaintzaileek esandako lekura eroan beharko dituzte umeak goizean, eta baita bertan batu eguerdian ere, udalekuek iraun bitartean.

**ASKOTARIKO EKINTZAK**
Udaleku irekiek iraungo duten bitartean neska-mutikoek jarraituko duten programazioa ere prest dute dagoeneko Xipizaroko begiraleek. Adinari egokitutako jolas eta ekintzak egingo dituzte umeek. Hori horrela, askotariko jolasak eta eskulanak egitearekin batera, abestu egingo dute, igerilekura joan, San Martzialera eta Osintxura txangoa egin, San Fermin eguna ospatu...

Eta azkeneko egunean, uztailaren 23an, azken jaia egingo dute guztiek, udaleku irekiei agur esateko.



HILARIO AZKARGORTA

## Bazkaria eginda esan diote agur denboraldiari

Athleticeko zaleak San Martzialen izan ziren aurreko zapatuan. Lehenengo mailakoen denboraldia bukatu dela eta, agur bazkaria egin zuten San Martzialgo ermitaren aterpean. 60 lagun inguru batu ziren. Goizean hamarretakoa egin eta eguerdian ondo bazkaldu eta gero, euren talde kutunaren denboraldiko gorabeheren gainean jardun zuten.

Ondo baino hobeto igaro zuten eguna; hain ondo, batzuk etxera joan nahi ez eta afari-merienda egiten geratu ziren eguerdian soberan geratutakoarekin.

**JAIAK** > SAN MARTZIAL EGUNA

# San Martzialerako mahai eta aulkiak alokatzeko epea eguenean irekiko dute

Ekainaren 24ra arte egongo da zabalik, astegunetan, 18:00-21:00 ordutegian, kultura etxean

**M.B.** > BERGARA
Uztailaren 4an egingo den San Martzialgo erromeriarako mahaiak eta aulkiak alokairuan hartzeko epea eguenean zabalduko dela jakinarazi dute Kultura Zerbitzutik. Hilaren 24ra arte egongo da zabalik, astegunetan 18:00-21:00 ordutegian, kultura etxean.

Mahai bakoitzak 20 euro balio du eta horrekin batera 100 euroko fidantza ere jarri beharko du eskatzaile bakoitzak. Era berean, eskatzaile bakoitzeko ezingo dira bost mahai baino gehiago alokatu eta mahai bakoitzeko zortzi aulki. Egindako eskaerarekin agiri bat jasoko du eskatzaileak.

Mahai eta aulkiak banatuko dituzte uztailaren 3an, 17:00-20:00 ordutegian, San Martzialgo kantina ondoan. Entregatu, berriz, uztailaren 4an entregatu beharko dira, 19:00-21:30 ordutegian, leku berean. Materiala entregatzen duenari Udaleko zigilua jarriko diote eskaria egin zuenean jasotako agirian.

Kultura Zerbitzutik jakinarazi dute aulki eta mahaiak esandako egun eta orduan eta egoera onean entregatzen ez duenari ez diotela zigilurik jarriko; ondorioz, fidantza galduko du.

Fidantza jasotzeko egunak dira uztailaren 6tik 13ra, astegunetan 18:00-21:00 ordutegian, kultura etxean, eta zigilatutako agiria eraman beharko da.

**Ane Untzurruntzaga** > KZguneko koordinatzailea

# "Egoitza berrian, baina lehengo zerbitzu bera ematen dihardugu KZgunean"

**MONIKA BELASTEGI** > BERGARA

**Irizar jauregia zaharberritzeko lanek irauten dute bitartean, kultura etxean kokatu dute KZgunea. Gutxienez, urte bukaerara arte egongo dira han, baina bertoko koordinatzaile Ane Untzurruntzagak gustuko du lekua, "erosoa ea argitsua" delako.**

**Kultura etxean zaudete orain.**

Bai; behe solairuan gaude, erakusketa areto moduan erabiltzen zen gelan. Eta, egia esan, eroso gaude. Bitan banatuta dago gunea: batetik, nabigatzeko gunea dago , zortzi ordenagailurekin; eta, bestetik, ikastaroetarako gunea dago, beste hamabi ordenagailurekin.

Azken baten, lehen ematen genuen zerbitzu bera ematen jarraitzen dugu astelehenetik egubakoitzera, 09:00-13:00 eta 16:00-20:00 ordutegian.

**Nabigatzeko gunearen funtsa zein da?**

Jendea kontsultak egitera, e-posta erabiltzera... dator, betiere, arau batzuk errespetatuz: gehienez, 45 minutuz erabil daiteke, eguneko; sarbide batzuk debekatuta daude; 16 urtetik beherakoak ezin dira KZgunera sartu eta 16 eta 20 artekoek guraso edo tutore baten idatzizko baimena ekarri behar dute. Bestalde, KZgunean nabigatzeko ezinbestekoak dira bertoko erabiltzaile izena eta pasahitza izatea. Horiek neuk ematen ditut.



Ane Untzurruntzaga. MONIKA BELASTEGI

**Gaur egun oso ohikoa da etxean ordenagailua izatea eta baita Interneterako sarrera ere. Horren ondorioz, orain jende gutxiago dator nabigatzera?**

Pixka bat igarri da, baina ez askorik. Zerbitzu publikoa da, doakoa, eta jendea etortzen da; esango nuke, batez beste, 35 lagun etortzen direla egunero. Bestalde, etorkinak ere asko etortzen dira, besteak beste, familiakoekin kontaktuan egoteko beste modu bat delako, posta elektroniko bidez. Izan ere, nabigazio gelan ezin da txateatu ezta bideo konferentziarik egin ere.

**Formazio-gunean askotariko ikastaroak egiten dituzue.**

Internet nola erabili erakuste dugu: posta elektronikoa erabiltzen, nabigatzen, egunkaria irakurtzen...; sarea erabiliz administrazioarekin harremana izaten ere bai; argazkiak tratatzen; sare sozialak ezagutzen...

Jende asko etortzen da ikastarootara. Gainera, bi hilean behin, asko jota, ikastaro berriak eskaintzen ditugu. Bestalde, ikastaroetako asko laburrak izaten direnez –bi orduko asko dago–, bada, jendea animatu egiten da egitera. Horrez guztiaz gain, IT txartela ere eskura daiteke hemen. ONA txartela ere tramitatu izan dugu orain arte –dagoeneko kendu egin dute txartela– eta jende nahikok egin du. Bada, jarraituko dugu Izenpe, Herritarren Txartel Elektronikoa, egiten.

**Ikastaroetan izena emateko zer egin behar da?**

Dagoeneko ekaineko ikastaro sortarekin dihardugu eta berriz diot doan direla. Izena emateko 943 76 35 10 telefono zenbakira deitu behar da edo *tutor.bergara@kzgunea.net* helbidera idatzi.

**UDALA** > MOZIOA

# Askatasunaren itsasontziari Israelen erasoa salatu dute

**M.B.** > BERGARA

Udalbatzak mozioa onartu zuen asteleheneko ezohiko osoko bilkuran, "Israelgo estatu sionistak bere ejerzito zapaltzaile eta genozidaren bitartez Askatasunaren itsasontziaren aurka egindako erasoa" salatzeko. Mozioa onartu zuten Gobernu taldearen, EAJren eta EAren aldeko botoekin eta PSE-EEren abstentzioarekin.

Mozio horrekin udalbatzak salatu du "Gazako herritarrek beharrezkoak dituzten oinarrizko ondasunak helaraztea helburu bakartzat zuten internazionalistak erail izana". Horrekin batera, elkartasuna adierazi diete "hildakoen senideei, zaurituei eta ekimen ausart horretako partaide guztiei". Era berean, "Israelgo estatuak burutzen dituen krimenen inguruko nazioarteko ikerketa eta auzipetzea hastea" eskatu dute. Horrez gain, Gazako blokeoarekin amaitzea ere eskatu dute eta baita "Israelgo estatu arrazistaren boikota" babestu ere. Azkenik, Europako Batasunari exijitu diote "Israelekin dauzkan lehentasunezko merkataritza akordioak bertan behera lagatzeko eta Israelek nazioarteko legalitatea bete dezan politika erreal bat gara dezala".

## oharrak

HITZALDIA

**> Atez ateko zabor batze zerbitzua hizpide bihar, hilak 15**

*Zaborraren kudeaketa Debagoienean. Atez ateko zabor bilketa* delako hitzaldia egingo du Jordi Colomerrek. 19:00etan izango da, osoko bilkuren aretoan.

BAZKARIA

**> Umore Onakoek urteroko bazkaria egingo dute hilaren 27an**

San Martzialen egingo dute eta bazkide bakoitzak pertsona bat gonbidatu ahal izango du. Interesatuek izena eman behar dute hilaren 20a aurretik elkartean.

IRTEERA

**> San Joxepek irteera antolatu du Santanderrera**

Ekainaren 23an izango da irteera. Itsas museoa ikusiko dute eta Castro Urdialesen ere egingo dute geldialdia. Bazkaria Isla herriko Hotel Islan egingo dute. Izenematea da hilaren 17a baino lehen, elkartearen bulegoan.

EUSKARA

**> Araba Euskaraz jairako autobusa antolatu du Aranzadik**

Ekainaren 20an Agurainen izango den jairako autobusa antolatu du Aranzadik. Txartelak salgai daude idazkaritzan hilaren 17ra arte. Autobusa 10:00etan abiatuko da, geltokitik, eta 19:30ean itzuli.

KINTADA

**> 1937an jaiotakoek bazkaria egingo dute ekainaren 20an**

Txartelak salgai daude 20 eurotan Kortazar tabernan eta Yoar zapata-dendan. Bazkaria 14:30ean izango da, Azpeitxin. 12:30ean, hildakoen aldeko meza egongo da San Pedron.

UDALA

**> San Martzialen erreserbarik ez egiteko eskatu dute**

San Martzial ingurua garbitzen eta prestatzen dihardu Udalak. Hala, San Martzial egunerako erreserbak egiteko jartzen diren zintak, plastikoak... kentzen dihardute. Lanok hilaren 25era arte egingo dituzte. Hortaz, Udaletik eskatu dute erreserba gehiago ez egiteko, ez direlako errespetatuko.

OGIZUN
koop. elk.
okindegia




Ibargarai 44-46 BERGARA
943 76 45 53
Ibargarai 17 behea BERGARA
943 76 21 37
Obradorea. Zubillaga 10 OÑATI
943 78 24 13


Musika eskolako tailer I eta tailer II taldeetako ikasleak irakasleekin. MIREIA BIKUÑA

**HEZKUNTZA** > LAGUNTZA

# Berrikuntzetarako eta materiala erosteko laguntza musika eskolari

Jaularitzak 66.000 euro pasa emango dizkio; besteak beste, leihoak aldatu, paretak margotu eta instrumentu eta ordenagailu berriak erosiko dituzte

**MIREIA BIKUÑA** > OÑATI

Jose de Azpiazu musika eskolak dirulaguntza potoloa jasoko du Eusko Jaurlaritzaren eskutik; hain zuzen ere, 66.263 euro. Laguntza hori Eusko Jaurlaritzak 2009ko abenduan hartutako akordioaren haritik dator. Musika irakasteko zentroen jabe diren eta zentro horiek diruz laguntzen dituzten 65 musika eskolen eta lau kontserbatorioen artean 5.000.000 euro banatzea adostu zuen. Jose de Azpiazu musika eskolaren dirulaguntza Udalak jaso du.

**DIRUA, INBERTSIOETARAKO**

Laguntza hori uztailaren 20rako gastatu beharko dute, eta egindako lanen agiriak aurkeztu beharko dituzte dirua jasotzeko. Izan ere, Eusko Jaurlaritzak baldintza bakarra jarri du laguntza emateko: dirua inbertsioetan gastatu beharko dute musika eskola guztiek. Horren harira, udal arduradunak eta musika eskolakoak ados jarri dira, eta zehaztu egin dituzte zeintzuk izango diren egin beharreko lanak. Dirulaguntzaren zati handiena –39.000 euro pasa– eraikina eraberritzeko erabiliko dute; hain zuzen ere, leihoak aldatu,eraikina margotu, ateetako sarrailak, sarrerako kartela eta itxiturak aldatuko dituzte.

Bestalde, material berria erosiko dute. 10.677 euro gastatuko dituzte, eta, besteak beste, akordeoiak, tronboiak, klarineteak eta gitarra elektrikoak erosiko dituzte. Gainera, irakasleendako ordenagailuak eta gelak hornitzeko armairuak eta altzariak erosiko dituzte.

Berrikuntzekin itxura berria izango du musika eskolak.

DATUA

**66.000**

**EURO BAINO GEHIAGO**

**Hain justu ere, 66.263,42 euro izango ditu musika eskolak eraikina eraberritu eta materiala erosteko; besteak beste, instrumentuak, altzariak, ordenagailuak eta telebista erosiko dituzte.**

**Aitor Madina** > Musika eskolako zuzendaria

## "Egoki erabiliko dugu Eusko Jaurlaritzak emandako dirua"


M.B.

**M.B.** > OÑATI

**Aitor Madina musika eskola zuzendaria da. Jaurlaritzaren dirulaguntza "gustura" jaso dutela esan digu.**

**Musika eskolak itxura berria izango du laster.**

Bai, hala da. Egoki erabiliko dugu Eusko Jaurlaritzaren laguntza.

**Noiz hasiko dituzue lanak?**

Leihoak aldatuko ditugu lehenengo. Egun batzuk barru hasiko dira. Ondoren, gainerako lan guztiak egingo dituzte.

**Eroso zaudete Gorritxitxiko egoitzan?**

Ez gaude gaizki, baina etorkizunean erosoago egoteko esperantza daukagu. Eraikina Udalak lagatzen digu, eta beste leku batera aldatzeko proposamena egin diegu, baina, oraingoz, hemen jarraitu beharko dugu...

**Zenbat ikasle eta irakasle dituzue musika eskolan?**

300 ikasle inguru eta 17 irakasle ditugu egun. Ikasle gazteenak 4 urtekoak dira eta zaharrena 80 urte ingurukoa. Adin guztiendako tokia dugu.

> KIROLA

### Asteon egin beharko da kirol kanpainako behin betiko izenematea zozketako orduen arabera

Aurreko eguenean egin zuten udako kirol kanpainako behin betiko izenematea zehazteko zozketa. Horren arabera, ume bakoitzak ordu eta egun zehatz batean joan beharko du matrikulazioa egitera kiroldegiko bulegora. Izenematea gaurtik egubakoitzera arte egin beharko dute. Zozketan tokatutako orduan agertzen ez direnak txanda galdu eta azkenerako utziko dituzte.

Behin betiko izena ematerakoan ume bakoitzak gehienez, hiru kirol aukera ditzake. Gainera, txandak aukeratu beharko ditu: ekainaren 28tik uztailaren 9ra; uztailaren 12tik 23ra; abuztuaren 3tik 13ra; abuztuaren 17tik 27ra, edo txanda bakarra. Ordainketa izena ematerakoan egin beharko da.

> MUSIKA

### Ikasturte bukaerako kantaldia egingo du Jose Mari Anduagak udal euskaltegian eguenean

Bedita Larrakoetxea udal euskaltegiak ikasturte bukaerako ekitaldia antolatu du eguenerako. Hain zuzen ere, Jose Mari Anduagak kantaldia egingo du euskaltegiko aretoan, 18:30ean. Emanaldia irekia dela esan digute antolatzaileek. Jose Mari Anduaga oñatiarra da, eta grabatu dituen bi diskoetako (*Bizitza bera*, 2003an; eta *Garunak dantzan*, 2008an) kantu ezagunenak abestuko ditu.

Bestalde, euskaltegiak EGA titulua eskuratzeko ikastaro trinkoa egingo du hilaren 28tik uztailaren 5era eta irailaren 1etik 7ra. 80 orduko ikastaroa izango da, eta egunero lau ordu eta erdiko eskolak emango dituzte (09:00-13:30). Interesatuek euskaltegian eman dezakete izena hilaren 24a baino lehen. EGA azterketa irailaren 18an egingo dute.

> GASTRONOMIA

### Bakailaoa eta ibarreko barazkiak dastatzeko aukera Debagoieneko Gastronomia Jardunaldietan

Debagoieneko Mankomunitateak eskualdeko jatetxeekin antolatutako V. Gastronomia Jardunaldiak hilaren 30era arte izango dira. Ibarreko hainbat jatetxetan menu bereziak dastatzeko aukera egongo da. Oñatin, Goiko Bentan, Etxe Aundin eta Arantzazuko Santutegia Hotelean dasta daitezke menuak. Oraingo honetan, bakailaoa eta ibarreko barazkiak dira erabiliko dituzten produktuak.

Gastronomia Jardunaldietan ibarreko produktuen ekoizpen guneak erakutsi gura dituzte. Gainera, bisita bereziak egiten dihardute, gatz museora, Gomiztegira eta Antzuolako Lapatza baserrira. Informazio gehiago *www.turismodebagoiena.com* helbidean.

> AZPIEGITURAK

### Zubillaga eta Kurtzetxo arteko bidegorriaren proiektua ikusgai dago hilaren 19ra arte

Zubillaga eta Kurtzetxo arteko bidegorriaren proiektua ikusgai jarri du Diputazioak hilaren 19ra arte. Epe horretan, proiektua aztertu eta beharrezkoak diren alegazioak egiteko aukera izango dute interesatuek eta kaltetuek. LKSk idatzi duen proiektuaren arabera, bidegorriak erakunde publikoen, enpresen eta partikularren jabetzakoak diren 24 lursail ukituko ditu. Bestalde, lur apizko bi pasabide egokituko dituzte ibilbidean zehar: Madalenako biribilgunea gurutzatzeko bata, eta herriko saihesbidea gurutzatzeko bestea. Azken hori Cartonajes Arregi lantegitik Obispo Otadui aldera egingo dute. Lanok hamar hilabetean egin beharko dituzte.

### oharrak

BIRZIKLAPENA

**> Puntu Berde Mugikorra plazan egongo da zapatuan**

Etxeko olioa batzen duen furgoneta zapatuan egongo da plazako aparkalekuan 09:00etatik 13:00etara.

OSPAKIZUNA

**> 1964an jaiotakoek kintada egingo dute uztailean**

Etxe Aundin egingo dute bazkaria uztailaren 24an. Bazkarira joan gura dutenek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako zenbaki honetan: 30350005310051041678.

OSPAKIZUNA

**> 1968an jaiotakoek kintada egingo dute**

Baster Alde jatetxean egingo dute. Interesatuek 30 euro sartu beharko dituzte Euskadiko Kutxako 30350005320051041313 zenbakian.

**ARETXABALETA** > UDAKO KIROL KANPAINA

# Opor sasoian kirola egiteko izenemate epea zabalik dago

4 urtetik gorakoendako da eskaintza eta hainbat kirol jarduera dituzte aukeran: patinajea, igeriketa, futbola...

**MIRARI ALTUBE** > ARETXABALETA
Aretxabaletako Kirol Zerbitzuak udako kirol kanpainarako dei egin du. 4 eta 15 urte artekoendako egin du eskaintza eta bi txanda egongo dira: hilaren 28tik uztailaren 9ra eta uztailaren 12tik 23ra. Lehenengo txandan izena emateko epea egubakoitzean bukatuko da eta bigarren txandarena, uztailaren 9an. Interesatuek Zainduz gimnasiora jo behar dute (943 71 26 28).

**KIROL UDALEKUAK**
Adina hartu dute kontuan kirol jarduerak antolatu eta taldeak egiteko orduan. Hala, lau urtetik zazpira bitartekoek ikastaro bi dituzte aukeran –15 euro–: patinajea eta igeriketa (Eskoriatzan).

Zortzi eta hamaika urte artekoendako, ostera, kirol udalekuak antolatu dituzte –30 euro–. Hala, txandak iraun bitartean egunero elkartuko dira goizean eta arratsaldean (10:00-12:30 eta 15:00-17:00) eta hainbat jarduera egingo dituzte: igeriketa, jolasak, futbola, pilota, herri kirolak… Horrez gain ikastaroak ere izango dituzte aukeran: frontenisa, patinajea eta futbola.

**FRONTENIS TXAPELKETA**
Nagusienek, 12 eta 15 urte artekoek beste jarduera batzuk dituzte –15 euro–: skate, patinajea, aerodance, spinning eta trialsina.

Eta 15 urtetik gorakoendako frontenis txapelketa antolatu dute –5 euro–. Iturrigorri pilotalekuan izango dira partiduak eta gutxienez sei taldek eman beharko du izena txapelketak aurrera egiteko.



Iazko kirol kanpainan batuka ikastaroa egin zuen neska koadrila. M.A.



Eskoriatzako hainbat etxetako balkoiak. M.A.

**ESKORIATZA** > LEHIAKETA

## Abian da balkoietako eta leihoetako loreen lehiaketa

Ez dago izenik eman beharrik, baina balkoi eta lehioek sanjuanetarako gertu egon behar dute

**M.A.** > ESKORIATZA
Hirugarren aldiz deitu du Kultura batzordeak leiho eta balkoietako loreen lehiaketa eta eskoriatzarrak etxe eta eraikinetako aurrealdeak apaintzera animatu gura ditu ekimenarekin. Batez ere erdigunean kokatutako etxeak hartuko dituztela kontuan diote antolatzaileek, "jendeak kaletik ikus ditzakeen eraikinak".

**DISEINU LIBREA**
Lehiaketan parte hartzeko ez dago izenik eman beharrik, nahikoa da leiho eta balkoiak lorez, aihen-belarrez edo beste edozein landarez dotoretzea. Lore apainketaren diseinua, gainera, norberaren esku dago. Sanjuanetarako balkoi guztiek gertu egon beharko dute epaimahaiak baloratu ahal izateko. Epaimahai hori Kultura batzordeko udal ordezkariek eta lorezaintzarekin eta artearekin zerikusia duten adituek osatuko dute. Baloratzerakoan "irizpide estetikoak bakarrik" izango dituztela kontuan jakinarazi dute antolatzaileek.

Epaimahaiaren erabakiaren berri San Pedro bezperan emango du Kultura batzordeak; hau da, ekainaren 28an. Eta saria hemengo produktuekin osatutako saskia izango da. Iazko irabazlea Kontxi Zubizarreta izan zen.

**HIRUATX**

## Ekuadorko proiektua berbagai

**M.A.** > ARETXABALETA
Ekuadorren garatzen dabilen proiektuaren berri emango du Hiruatx elkarteak eguenean, hilak 17, Arkupeko Zaraia aretoan (18:30). *Salinasen nola?* izena jarri diote aurkezpen horri eta handik etorri den Dorian Fernando Ruiz izango da hizlaria.

**IKUS-ENTZUNEZKOA**
Ekuadorko Salinas eskualdean dabil lanean Hiruatx azken hilabeteotan, eta bertako berri ematen duen ikus-entzunezkoa eskainiko du eguenean. Gero kooperatiba proiektuaren gainean jardungo du Dorian Fernando Ruizek, eta Salinasko errealitatea zein den jakinaraziko die aretxabaletarrei.

## oharrak

MUSIKA
**> Musika eskolako akordeoi ikasleen emanaldia gaur**
Akordeoi ikasleek ikasitakoaren berri emango dute Arkupen gaur (18:30).

IKUSKIZUNA
**> Pirritx eta Porrotx pailazoak martitzenean plazan**
Pailazo ezagunek Marimotots lagunarekin batera *Irrien lagunak* ikuskizuna eskainiko diete umeei martitzenean, hilak 15, Herriko Plazan (18:00).

ERRETIRATUAK
**> Bihar 'Mihiluze' saiora joateko lekua daukate autobusean**
*Mihiluze* saioarean grabaketa ikusi gura duten erretiratuek izena eman dezatela Basotxon

MERKATARITZA
**> Aretxarteren saria jasotzeko bihar arteko epea**
Maiatzeko zenbaki saridunaren jabeak (20.997) bihar arte du agertzeko epea. Bestela ordezkoa duenari emango diote (14.051).

ERRETIRATUAK
**> Basotxoko kideak alkatearekin batzarra eguaztenean**
Herriko nagusien gainean Udalak duen iritzi eta egitasmoen berri jakiteko batzarra egingo dute alkatearekin hilaren 16an (17:30) Basotxon.

DEIA
**> Autobusa AC/DC taldearen kontzertura joateko**
Autobusa antolatzen dabiltza Bilboko kontzertura joateko. Interesatuok deitu antolatzaileei (690 12 98 13) edo Txikibarrera jo.

IZENEMATEA
**> Dantza ikastaroak helduendako**
Oinarrizko dantza ikastaroa antolatu gura du musika eskolak. Argibideak eskatu eta izena emateko Leizarra musika eskolara jo.

IZENEMATEA
**> Mutilendako dantzak**
Euskal dantzak ikasi gura dituzten mutilendako deialdia egin du musika eskolak. Interesatuek bertara jo dezatela.

> DEIALDIA

### Hezkuntza egitasmoetarako Udalak iragarritako dirulaguntzak eskatzeko epea zabalik dago

Maiatzaren 26an egindako osoko bilkuran onartu zituen Eskoriatzako udalbatzak 2009/2010 ikasturterako hezkuntza egitasmo eta ekintzetarako dirulaguntzen oinarriak. Eta 2.700 euroko partida bideratu du laguntza horiendako.

Guraso elkarteek uztailaren 2a bitartean eska dezakete dirulaguntza eta izango da hezkuntza proiektuak, kultura, kirola, osasun heziketa, aisialdiko egitasmoak, material didaktiko berritzailea eta beste hainbat proiektu finantzatzeko. Baita ikastetxean euskararen erabilera sustatzeko egitasmoendako ere.

IRIARTE
Umeen denda
•
Helduen lentzeria
Durana 8
Tel.: 943 79 10 96
ARETXABALETA

BASABE
jatetxea

Basabe bidea z/g
Tel.: 943 77 07 94
Aretxabaleta



Mozorro festa egin zuten iaz udaleku irekiei amaiera emateko. L.Z.

**ELGETA** > UDAKO AISIALDIA

# Uda Kirola programan bost ekintza aukeran

Orientazioa, bizikleta irteerak eta piraguismoa 10 urtetik gorakoendako dira; tai txi eta irristaketa saioak, berriz, 4 urtetik gorako umeendako

**LARRAITZ ZEBERIO** > ELGETA

Uztailerako eta arratsaldez egiteko antolatu ditu Udalak Uda Kirola programako ekintzak. Izena eman beharra dago eta uztailaren 5era arteko epea zabaldu dute horretarako udaletxean.

Askotariko proposamenak dira; bost, guztira. Umeen adina kontuan hartuko dute, eta prezioa, ekintza bakoitzeko, bost euro da. Orain, aukera egokia egitea besterik ez da falta.

**GAZTEENDAKO HIRU PROPOSAMEN**

Orientazioa, mendi bizikleta irteerak eta piraguismoa proposatzen dizkie Udalak 10 urtetik gorako gazteei. "Orientazioko bi saio izango dira, lehenengoa teorikoa eta bigarrena praktikoa", azaldu du Rebeka Ubera zinegotziak. "Mendi bizikleta irteerak uztailaren 6an eta 8an egingo ditugu, eta piraguismo saioen kopurua guztiz konfirmatu barik daukagu, baina guztiak arratsaldez egingo dira".

**TAI TXIA ETA IRRISTAKETA**

4 urtetik gorako umeek hiruna saio tai txi eta irristaketa izango dituzte aukeran. "Tai txi saioak 45 minutu ingurukoak izango dira eta irristaketa uztailaren 14an, 21ean eta 28an egingo dugu", esan du Uberak.

**UDALEKU IREKIETARAKO, 53 UME**

Ferixa Nagusiko jaiak amaitu bezain laster, uztailaren 5ean, zabalduko du Udalak udaleku irekien programa. Aurten 53 umek eman dute izena; 2-5 urte bitartekoak 32 dira, eta 5 urtetik gorakoak, berriz, 21. "Lau hezitzaile eta bi talde nagusi egongo dira", azaldu du Rebeka Ubera zinegotziak. "Hezitzaile bat egongo da 5 urtetik gorakoekin eta hiru txikiekin. Talde hori ere bereizi egingo dugu. Haien beharrak eta erritmoak kontuan hartuta talde berezia egingo dugu 2-3 urte bitarteko umeekin". Udaleku horiek uztailaren 30era arte iraungo dute.

**LEINTZ GATZAGA** > LANA

# Peoi lanposturako deialdia egin dute eta eguaztenean bukatuko da izena emateko epea

Sei hilabeterako hartuko dute eta egun erdiko jarduna izango du; sasiak kendu eta bide bazterrak garbitu beharko ditu

**MIRARI ALTUBE** > LEINTZ GATZAGA

Langabeendako da deialdia eta Inemen bitartez hartuko du langile hori Udalak, azken urteotan legez. Interesatuek Internet bidez eman behar dute izena *www.redtrabaja.es* helbidean.

Langile horrek ibilbide, parke eta bide bazterren garbiketa eta mantentze-lanak egin beharko ditu, Bengoerreka parkeko eta gatz museo inguruko garbiketak batez ere. Ikasketarik eta aparteko esperientziarik ez diote eskatuko, baina bai honakoak: sasiak garbitzeko makina erabiltzen jakitea; gidabaimena eta automobila izatea; Arrasateko Inemeko bulegoan izena emanda egotea eta Gatzagan erroldatuta egotea. Egun erdiko lan jarduna izango du: 08:00-12:00.

**PILOTALEKUAREN LANAK ONARTUTA**

Bestalde, egunotan jakinarazi du Aldundiko Landa Ingurunearen Garapeneko departamentuak onartuta duela pilotalekuaren teilatua konpondu eta ixteko proiektua. Inbertsioa 114.000 euro ingurukoa izango da eta horietatik 60.000 euro jarriko ditu Aldundiak Landagipuzkoa 32 egitasmoari esker.

**ARAMAIO** > KULTURA

# Alex Mendikuteren argazki erakusketa ikusgai Sastiñan

Aramaioko naturari buruzko argazkiak batu ditu azken urteotan Mendikutek; erakusketa ekainaren 27ra arte izango da zabalik

**E.M.** > ARAMAIO

Alex Mendikuteren argazki erakusketa zabaldu zuten atzo Sastiñan. Argazki zale amorratua, Aramaioko naturari buruzko erakusketa jarri du ikusgai Alex Mendikutek. Guztira, dozena bat irudi dira Sastiñan zintzilikatutakoak, eta tartean hainbat muntaia daude, Erakusketa ekainaren 27ra arte izango da zabalik; aste barruan eta zapatuetan 19:00etatik 20:00etara eta domekan, eguerdian zabalduko dute Sastiñako aretoa, 12:30etik 14:00etara hain zuzen.

**BARIKUAN, KONTZERTUA**

Barikuetako kontzertuekin jarraituz, Deiedra taldearen emanaldia izango da barikuan, hilaren 18an, Sastiñan; Basque Lands estiloko folk emanaldia izango da. Kontzertua aurrekoak baino zertxobait lehenago hasiko da, 18:30ean.

**ARGAZKILARIA, JAIETARAKO**

Udalak argazkilari bat kontratatu nahi du sanmartinetarako. Jaietako giroa erretratatzeko gertu daudenek udaletxean eman dezakete izena ekainaren 30a baino lehen.



Atzo zabaldu zuten Alex Mendikuteren erakusketa. JULIO CALLEJA

**ANTZUOLA** > DEIALDIA

# Alardean parte-hartzeko deia egin du Udalak

Uztailaren 17an egingo da aurten jaia; herritarrei parte-hartzeko deia egin die

**ARANTZAZU EZKIBEL** > ANTZUOLA

Mairuaren alardean parte hartu gura duenak izena eman beharko du ekainaren 16a, eguaztena, baino lehen. Horretarako, udaletxera deitu 943 766 246ra eta izen-abizenez gain, sakelako telefono zenbakia eta korreo elektronikoa eman beharko dute. Bestela, *kultura@antzuola.net*-en ere eman daiteke izena.

**UZTAILAREN 17AN**

Mairua biziberritzeko taldea lanean hasita dago aurtengo alardea antolatzen; uztailaren 17an izango da alardea aurten.

"Iaz, alardea eguneratuta arrakasta handiz bizi izateko aukera izan genuen; eta, hori hala izan zen jendearen partehartzea izan genuelako. Aurtengo asmoa da iaz ondo atera ez zirenak kontuan hartu eta zuzendu, eta beste hainbat berrikuntza sartzea", azaldu dute Kultura saileko arduradunek.

**GIMNASIA ERAKUSTALDIA**

Gimnasia erritmikoko neskamutikoek erakustaldia egingo dute etzi, eguaztena.

Torresoroan izango da erakustaldia, 16:00etan. Han izango dira aurtengo ikasturtean ibili diren gaztetxoak, 30 inguru. "Urtean behin egiten dugu erakustaldia Antzuolan, ikasturte amaieran", azaldu digu Txomin Cavo Ariznoa taldeko arduradunak.

Erakustaldiarekin kurtsoa amaitutzat emango dute. Irailean hasiko dira berriro; norbaitek izena eman gura badu dei dezala 600 224 049 telefonora, edo idatz dezala ariznoa_ge@hotmail.com helbidera.

# Kirola



**> NICOLE COOKE** Ziklista britainiarra izan zen Elgetako erlojupekoan azkarrena > 24



**> JOSE LUIS AGIRRE** Omenaldi hunkigarria Aloñako 'alma mater' izandakoari > 25

**> IBAN RODRIGUEZ** Mondrako entrenatzaile berriarekin izan gara berbetan; erronka berriaren aurrean ilusioz dagoela aitortu du > 27



# Amestutako eguna, Reala lehenengo mailara bueltatzeko

**TXAPELDUNAK** Celtari 2-0 irabazi ostean, Reala lehen mailan izango da hurrengo denboraldian

**FESTA** Partidua amaitutakoan festa handia izan zen Anoetan eta Gipuzkoa osoan

**ANOETAN SENDO** Realak ez zuen hutsik egin eta uste baino partidu lasaigoa izan zen atzokoa

**XABIER URTZELAI** > DONOSTIA

Kategoria galdu eta hiru urte ondoren itzuliko da Reala handien artera, dagokion tokira. Amestutako eguna izan zen atzokoa, goizean goizetik hasi, eta oheratu arte, berandu. Aitonek kontatzen dute Puertollanon igo zela Reala lehen mailara, eta urteetara kontatuko dugu Anoeta partidu eder baten testigu izan zela, Celtaren aurrean Realak helburua lortu zuela. 20.000 realzalek egin zuten Alde Zaharretik Anoetarako bidea kalejiran, eta 16:30ean jokalariak estadiora iritsi zirenean zoramena izan zen. ordu batzuk geroago gertatu behar zenaren aurrerapena. Lasarteren mutilek nekez izango dute berriro ere horrenbeste babes harmailetan, eta halaxe zelairatu ziren, 32.000 lagunen txalo artean. Partidua hasi eta lehenengo zatia, baina, trabatua izan zen. Joko gutxi, eta arrisku jokaldirik ez. Bigarrenean, baina, traba guztiak alde batera utzi, eta inoizko penalti ederrenak botata –bi behar izan zituelako– Prietinhok birritan sartu zion ziria Falconi. Hala, zaleek birritan izan zuten gol bera ospatzeko aukera. Pena, segituan erretiratu behar izan zela, min hartuta.

**AUKERA GARBIENAK**

Markagailduan atzean geratuta, aurrera egin nahian Celtak hutsuneak utzi zituen atzealdean, eta arratsaldeko arrisku jokaldi garbienak egiteko aprobetxatu zuen Realak, bigarrena iritsi zen arte. Cadizen kartutxo osoa hustu ez zuela erakutsita, area barruan Buenok ez zuen barkatu (2-0), eta orduan garbiago ikusi zuten zaleek bigarren mailari agur esateko ordua iritsita zegoela.

(22. orrialdean jarraitzen du)



Mikel Gonzalez jokalari arrasatearra estadioari buelta ematen, zaleen txalo artean, atzoko ospakizunen hasieran. XABIER URTZELAI



**Haritz Zubizarreta eta Ramon Ibarra**
Arrasate

"Realeko bazkideak gara, eta denboraldia oso luzea izan da. Gaur, baina, gozatzera etorri gara, taldea lehenengo mailara zela igo behar den ikustera. Lehenengo alde zaharrean buelta bat eman, eta bazkalostean Anoetara. Datorren urtera begira, espero dugu ezetz, taldeak ez ditzala fitxaketa mordoa egin; etxean, Zubietan, oinarri polita dugu".



**Santi Idigoras**
Realeko jokalari ohia

"Egindako denboraldi hasiera ikusgarrian egon da gakoa, horrek konfiantza eman zion taldeari. Entrenatzaile funtsezkoa izan da taldearen batasunerako".



**Txiki, Pausa eta Eros**
Oñati

"Etxean partidu asko irabazi ditugu, baina barkatu ere asko barkatu dugu. Gaurkoa, gozatzeko eguna da. Datorren urtera begira, fitxaketaren bat egin beharko da, baina etxean oinarri ona dugu. Joseba Llorenterena fitxaketa ezin hobea litzateke. Soinean dudan kamisetak badu bere historia. Huelvan izan nintzen elastiko honekin, eta Llorentek bi gol egin zituen egun hartan".



Anoeta estadio aurrealdean jendetza, partidua hasi aurretik. XABIER URTZELAI



Josetxo Muniategi bergararra GOITBko Maider Arregi eta Xabi Urtzelairekin. X.U.



Realeko jokalariak igoera ospatzen, Celtaren aurkako partidua amaitu ostean. Hiru urteren ostean, lehen mailan dira berriro txuri-urdinak.



Maider Arriaran eta Esti Garai arrasatearrak, Realeko bufanda erakusten. X.U



Arrasateko Irati STS eta Ekaitzeko koadrilakoak, batera. MAIDER ARREGI



**Marc, Maite eta Larraitz**

Arrasate

"Marc orain dela hamaika urte etorri zen Irlandatik Arrasatera. Irlandan Celtic taldearen zale amorratua da, eta hemen Reala jarraitzen du: "Sekulako giroa dago hemen, egunaz gozatzera etorri gara". Larraitzek, berriz, datorren urtera begira fitxaketaren bat egin beharko dela uste du: "Batez ere aurrealdea sendotu beharko dugu, golegile bat beharko du taldeak".



**Josetxo Muniategi**

Bergara

"Gaur egun handia da Realarendako, eta koadrilan etorri gara egunaz gozatzera. Datorren urtera begira? Bravo saltzen badute ez zait gaizki irudituko. Yeste? Ez nuke nahi!".



**Manu Garmendia eta Zulai Plazaola**

Oñati

"Realeko jarraitzaile amorratuak gara, batez ere Manu, eta horrexegatik denboraldiko partidu mordoa jarraitu ditugu elkarrekin. Gaur Realaren jaira etorri nahi izan dugu. Zorte handia izan dugu sarrerak lortzerako orduan, azken momentuan lortu ditugu. Datorren urtera begira ez dugu inongo zalantzarik, Reala ondo moldatuko da kategorian, eta mailari eutsiko dio".


Aretxabaletarrak, Juantxo taberna parean. X.U.


Bengalak Alde Zaharrean. X.U.


*Lortu dugu! Eskerrik asko* irakur zitekeen jokalarien kamisetetan. X.U.


Bergarako lagun taldea Alde Zaharrera iritsi berri. MAIDER ARREGI


Larreatarrak Donostian triatloia eginda. X.U


Oñatiko koadrila, ume eta guzti, zelaira sartzeko gertu. MAIDER ARREGI


Bergarako Deportivo tabernan ondo ospatu zuten Realaren lehen gola, Prietok penaltiz sartutakoa. JULIO CALLEJA


Donostiako Alde Zaharra jendez lepo izan zen goizetik. X.U.


Oñatiar koadrila parrandarako gertu..., nahiz eta tartean Athleticeko eta Bartzelonako zaleak egon. X.U.

**EMAKUMEEN BIRA** > ELORRIO-ELGETA ERLOJUPEKOA

# Cooke garaile Elgetan; Bira Häuslerrek irabazi du

Txapeldun olinpikoak erakustaldia egin zuen Elorrio eta Elgeta arteko erlojupekoan; 15 segundo atera zizkion iazko Birako irabazleari

**EDU MENDIBIL** > BERGARA

Lanbroa ezaguna du Nicole Cooke galestarrak eta bera izan zen zapatu goizean, euripean, ondoen moldatu zena. Pekingo Joko Olinpikoetan, errepideko proban, urrea eskuratu zuen txirrindulariak aise irabazi zien bere aurkariei Elgetako helmugan. Orduko Cookek (Swansea, 1983) ez zuen aukerarik Emakumeen Bira irabazteko, baina ez zuen nahi Euskal Herritik alde egitea gutxienez garaipen partzial bat eskuratu barik. Erakustaldi bikaina egin zuen Cookek.

**IAZKO PROTAGONISTA BERDINAK**

Hainbat urtez Biratik kanpo egon ondoren, antolatzaileek Elorrio eta Elgeta arteko erlojupekoa (5,9 km.) berreskuratu dute aurten eta espero zen bezala erabakigarria gertatu zen zapatu goizeko etapa. Claudia Häusler (Cervelo) eta Judith Arndt (HTC Columbia) alemanak berdinduta iritsi ziren zapatuko hitzordura, egueneko eta egubakoitzeko etapak jokatu eta gero. Iaz ere protagonista berdinak izan zituen Emakumeen Birak; Arndtek 17 segundogatik nagusitu zitzaion orduan Häusler herrikideari. Arndt, 34 urtekoa, Häusler baino bederatzi urte zaharragoa da. Txakur zaharra. 12 segundo atera zizkion Häuslerri Elgetako erlojupekoan eta iaia erabakita utzi zuen lasterketa. Arratsaldean jokatutako sektorean, Iurreta eta Zuia arteko etapan (78,5 km.) Marianne Vosek irabazi zuen esprintean eta faboritoen artean ez zen diferentzia aipagarririk izan. Baina atzoko azken etapan (Orduña-Orduña, 125 km.) Van Bleuten iritsi zen ihes eginda, Häusler 46 segundora eta gainerako faboritoek lau minututik gora galdu zituzten. Häuslerrek eraman du Bira.

**LAU EUSKAL TALDE**

Euskaldunei dagokienez, lau euskal talde izan dira lehian, baina protagonismo gabe lasterketan. Sailkapeneko onena Cristina Alcalde izan da, 42.postuan.



Nicole Cooke Elgetako irabazlea, Oxel Erostarbe alkatearekin. EDU MENDIBIL



Marianne Vos lehertuta, proba ostean.



Bezperan erorikoa izan zuen Decroixek.



Bras holandarra (16:46), 30.a helmugan.



Noemi Cantele italiarra, goizeko etapako azken metroetan. 16:58 egin zuen. E.M.

## Elorrio-Elgeta, sailkapena

| | |
|---|---|
| 1. Nicole Cooke | 15:09 |
| 2. Judith Arndt | 15:24 |
| 3. Marianne Vos | 15:34 |
| 4. Claudia Häusler | 15:36 |
| 5. Emma Johansson | 15:43 |

## Emakumeen Birako sailkapena

| | |
|---|---|
| 1. Claudia Häusler | |
| 2. Annemiek Van Bleuten | +1:20 |
| 3. Judith Arndt | + 4:35 |
| 4. Marianne Vos | + 5:55 |
| 5. Emma Johansson | + 6:41 |



Cookek dena eman zuen erlojupekoan.



XABI URTZELAI

## Gaztetxoendako saskibaloi jardunaldia Labegaraietan

Bergara KEko saskibaloi sailaren eskutik, gaztetxoei zuzenduriko entrenamendu saioa izan zen zapatu goizean Labegaraietan. Alex Familiarren koordinaziopean, Gorka Garcia jokalaria, Alex Gardoki eta junior mailako jokalariak aritu ziren begirale lanetan. Nahikoa lan izan zuten, deialdia erabat arrakastatsua gertatu baitzen: 9 eta 12 urte bitarteko 165 neska-mutiko azaldu ziren entrenamendu saiora eta gustura jardun zuten bi orduz. Saskibaloi saila, osasun onean...

**TXIRRINDULARITZA** > 74. SAN MARTIN SARIA

# Arturo Campos azkarrena Espoloiko helmugan

**E.M.** > BERGARA

Pielagos taldeko Arturo Campos kantabriarrak eskuratu zuen garaipena San Antonioko lasterketan, atzo. 30 lagunez osatutako taldea iritsi zen ihes eginda Espoloiko helmugara eta Campos izan zen azkarrena, Peio Olaberria (Ampo) eta Julio Peñaren (Pielagos) aurretik. Lokatza Sumofic taldeko Julen Irizar izan zen bergarar onena, 7. tokian. Kadete mailako 119 txirrindulari izan ziren lehian eta 81 lagun iritsi ziren helmugara, 60 km-ko ibilbidea egin ondoren.



Camposek erraz irabazi zuen esprinta. JULIO CALLEJA

**FUTBOLA** > JOSE LUIS AGIRRERI OMENALDIA

# Aloñako beteranoak izan ziren nagusi Jose Luis Agirreren omenezko partiduan

Lehia hasi aurretik iaz hil zen Agirre izan zuten gogoan kirol elkarte eta erakundeek

**TXOMIN MADINA** > OÑATI
Ikusmin handia piztu zuen zapatuan Realeko eta Aloñako beteranoek jokatutako partiduak. Anaitasun giroa izan zen nagusi, baita herriko futbolaren alde hainbeste lan egin zuen Jose Luis Agirre omentzeko gogoa ere.

Partiduaren aurretik, ekitaldi sentitua eskaini zioten iaz hil zen Agirreri. Ohorezko aurreskuaren ostean, kirol elkarte eta erakundeek hainbat opari egin zizkieten omenduaren familiakoei, eta Iñaki Olaldek egokitutako bertsoak ere entzun ziren.


Partidua hasi aurretik, familiako argazkia atera zuten bi taldeetako jokalariek Jose Luis Agirreren familiarekin. TXOMIN MADINA

**3-0 ALOÑA NAGUSI**
Partidua hastean baina, argi geratu zen inor ez zela Azkoagainera denbora pasa joan eta adinak adin, jokalariek zuten onena eman zuten. Zelaian egon ziren besteak beste, Alkiza eta Miguel Fuentes, eta Aloñaren elastikoarekin, Xanti Idigoras. Lehen zatia hutsean amaitu zen, Aloñako Pitu atezainak penalti bat gelditu eta gero. Atsedenalditik bueltan etxekoek hiru gol egin zituzten: Camino, Garai eta Albizu izan ziren golegileak. Realak ez zuen baloia sareratzerik lortu.

**ESKUBALOIA** > IV. CORPUS TXAPELKETA

# Mutiletan zein nesketan, gipuzkoarrak nagusi Oñatin

Gipuzkoako neskek nafarren kontra jokatu zuten finala; mutilek Bizkaiaren kontra

**T.M.** > OÑATI
Jendez lepo bete zen zapatuan Oñatiko kiroldegia IV. Corpus eskubaloi txapelketa ikusteko. Infantil mailako Gipuzkoa, Nafarroa, Bizkaia eta Arabako selekzioak aritu ziren nor baino nor eta emaitzak emaitza, maila oso ona erakutsi zuten denek ere.


Gipuzkoako mutilak finala irabazi zutela ospatzen. JULIO CALLEJA

**GIPUZKOA NAGUSI**
Goizeko finalerdietan, neska zein mutiletan, Gipuzkoa Arabaren kontra neurtu zen eta Bizkaia Nafarroaren aurka. Gipuzkoarrek bi partiduak irabazi zituzten, finalerako txartela lortuz.

Arratsaldeko finalak oso parekatuta egon ziren batez ere mutiletan. Gipuzkoako mutilek 29-28 irabazi zioten Bizkaiari; neskek 17-14 Nafarroari.

Gipuzkoarren artean egon zen debagoiendarrik: nesken entrenatzailea Aloña Mendiko Iñaki Cantero izan zen, eta jokalarien artean, Nagore Zelaia, Mireia Zango, Jokin Rodriguez eta Asier Ibabe oñatiarrek jokatu zuten.


JULIO CALLEJA

## Urtasun eta Lizaso, finalera

Egubakoitzean egon zen jokoan Bergara Hiria erremonte torneoko bigarren finalerdia eta bertan, 40-34 irabazi zioten Urtasun eta Lizasok Ezkurra eta Baleztenari. Irabazleek Etxebarria eta urrutia izango dituzte aurkari datorren egubakoitzean jokatuko duten finalean. 19:30ean hasiko da jaialdia, eta sarrera doan izango da.

LENIZ ESKORIATZA
SUZUKI
Konponketak: Txapa, Margoa, Mekanika
Bigarren eskuko autoen salerosketa, injektoreen konponketa eta I.A.T aurreko azterketa
Aingeru ibiltokia 31 • ESKORIATZA • Tel.: 943 71 50 61 • Faxa: 943 71 31 45

Abantailaz betetako kluba!

Goiena kluba

# Atera etekina txartelari!




## Abantailak

- Goienkaria astelehenetan eta ostiraletan etxeko postontzian jasotzea
- Goienak antolatutako ekitaldi eta ikastaroetan prezio berezia
- Goienak kaleratzen dituen produktuetan prezio berezia: DVD kopiak, CDak, kamisetak, Goienkaria-ko Sailkatuak, eskelak, ekitaldietarako sarrerak... eta orain, opari eta deskontu paregabeak lortu ditugu zuretzat

**Eta gainera, Goiena Klubeko zozketetan parte hartzeko aukera izango duzu.**

## Deskontu bereziak

LILURA EDERTZE INSTITUTUA

**BERGARA (Bazkidearentzat eta lagunarentzat)**
- Laser depilazioa: hanka osoa + izterrondoa **-%15** + opari besapekoak (axilak).
- -%20 elikagai-intolerantzia proban.
- -%10 mikropigmentazioan: begietan, ezpainetan edo bekainetan.
- -%10 fototerapia bidezko aknearentzako tratamenduan.

RENAULT AUTOBERRI

**ARRASATE/AZPEITIA/ELGOIBAR/IRUN/TOLOSA**
- **-%5** konponketetan, ez bada prezio itxia edo promozioa.
- **-%25** saltzen ditugun pneumatikoetan, urte osoan.
- Ordezkapeneko autoa 20 euro.
- Erosketetaren momentuan, goian aipatutako deskontua baino handiagoa badago, bezeroari deskontu handiena eskainiko diogu.

IKER SUKALDEAK

**ARRASATE/OÑATI**
- Sukalde osoa erosita, etxetresna elektriko bat opari.

Barceló BIDAIAK

**BERGARA/ARRASATE**
- **-%5** pakete konbinatuetan 600 eurotik gorako erosketagatik (eskaintza berezietan izan ezik).

ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA) AVIA

**ESTACIÓN DE SERVICIO ARRASATE (MECA)**
**ARRASATE**
- **-%2** gasolindegian erregaia erosita.
- **-%2** dendako produktuetan.

MONDRAGON LINGUA

**ARRASATE /OÑATI (18 urtetik gorakoentzako bazkideentzat)**
- **-%15** ingeleseko eta euskarazko ikastaroetan, SISTEMA KONBINATUAN. Ikasturte osoan.
- **-%15** aurrez aurreko eskoletan.
Eskaintzaren epemuga: 2010/03/01

naren FISIOTERAPIA ZENTROA

**ARETXABALETA**
- **-%15** zerbitzu guztietan.

CLINICA DENTAL BERGARA

**CLINICA DENTAL BERGARA**
**BERGARA (Bazkidearentzat eta familiako batentzat)**
- **-%10** zerbitzu guztietan
- **-%15** inplanteetan.
- 120 eurotik gorako tratamenduetan garbiketa doan.

TXURI-URDIN Donostia

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu ostiraletan, ez bada jaiegun, jaiegun bezpera, zubia edo oporraldia.
- **-%20** larunbatetan eta igandeetan, ez bada zubia edo oporraldia.
- **-%10** zubi eta oporraldietan.

AQUARIUM DONOSTIA-SAN SEBASTIAN

**DONOSTIA**
- Bi erosi bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

LARRAÑAGA AUTOESKOLA

**BERGARA**
- **-%15** inskripzioa ordaintzean.

ZIENTZIAREN KUTXAGUNEA
KUTXAESPACIO DE LA CIENCIA

**DONOSTIA**
- Bi erosi eta bat ordaindu (sarrera garestiena ordainduko da).

**Enpresendako: Zure enpresa Goiena Klubean eskaini nahi baduzu jarri gurekin harremanetan.**

**Telefonoa: 943 25 05 05 | Posta-e: *kluba@goiena.com***

**Iban Rodriguez** > Mondrako Ohorezko Erregional Mailako entrenatzailea

# "Gure buruan eta metodoan sinisten dugu, ea jokalariek nahi duguna ondo ulertzen duten"

JOKIN BEREZIARTUA > ARRASATE

**"Pozik, gogotsu eta ilusioz beteta" egingo dio aurre Iban Rodriguezek (Arrasate, 1980) datorren denboraldian Mondrako lehen taldea zuzentzeko erantzukizunari. UDAko gazte mailan egindako lan bikainak –bi igoera jarraian– izango zuen zerikusia Mondrak harengana jotzeko. Mojategin harrapatu dugu Rodriguez, eta bere fitxaketaz eta datorren denboraldiaz egin dugu berba.**

**Hasteko, pozik fitxaketarekin?**

Oso pozik. Arrasatekoa naiz eta betidanik izan dut Aretxabaletan aritu izanaren arantzatxoa. Eta orain, benetako unea heldu denean, Mondrara nator; oso gustura nago, pozik, gogotsu eta ilusioz beteta.

**Kontaiguzu nola joan zen zure fitxaketaren prozesua.**

Oso erraza izan zen. Joan den astelehen goizean deitu ninduten eta kafetxo bat hartzeko geratu ginen. Ordu erdiko kontua izan zen, bi aldeak di-da batean heldu ginen akordio batera. Erabateko gardentasunarekin jokatu genuen: Mondrako zuzendaritza taldea argi eta garbi etorri zen gugana eta guk zuzenean eman genien baiezkoa, ideia asko gustatu zaigun-eta.

**Nolakoa izan da Mondrako zuzendaritzaren izan duzun lehen harremana?**

Oso pozik geratu ginen bi aldeak. Oso jende jatorra da, eta batez ere, lanerako gertu dagoena. Maila hauetan ezinbestekoa da lanerako jendea fina egotea; izan ere, berba bakarrik egitea erraza da, hori edonork egin dezake. Aurrekoan, adibidez, Ardo eta Gazta Egunerako dena gertu egon zedin gogor aritu ziren lanean, eta hori bereziki gustatu zitzaigun.

Zuzendaritzarekin harreman estua izan gura dugu, egunen baten futbolaz lasai-lasai berba egitea gura badute, bada, berba egingo dugu. Hala ere, argi eta garbi azaldu ziguten ez zirela gure lanean sartuko.

**UDAko lau denboraldietan egindako lan bikainak ziur eragin duela Mondrak zuregana jotzeko. Nola gogoratzen dituzu urte horiek?**

Denbora gutxi daramagu entrenatzaile lanetan baina orain arte bizi izandako urterik onenak izan dira, zalantza barik. Asko ikasi nuen bertan.

Emaitzen aldetik urte paregabeak izan dira, baina baita lan aldetik ere. Izan ere, lan asko egin genuen eta lan hori ondo baino hobeto islatu zen emaitzetan. Lehen igoera gogoratzen dut bereziki. Bilbon izan zen, igoera faseko azken partiduan. Ez ginen faborito eta denboraldia oso gogorra izan zen. Igoera azken penaltian lortu genuen; ahaztezina izan zen.

Hala ere, aurrerapauso bat egin behar genuela sentitzen genuen eta iaz, denboraldi hasieratik, esan genuen gazte mailako azken urtea izango zela.

FITXAKETA

**"Ordu erdiko kontua izan zen, bi aldeak di-da batean heldu ginen akordio batera"**

ARETXABALETAKO URTEAK

**"Orai arte bi izandako urte onenak izan dira; lan asko egin genuen eta emaitzetan islatu zen"**

HARROBIA

**"Maila hauetan beheko taldearekin lan egitea ezinbestekoa da, harrobi barik urte gutxitan hilda zaude-eta"**

**Ezagutzen duzu Ohorezko Erregional Maila?**

Jokalari moduan hiru urtez aritu nintzen baina ordutik ez dut larregi jarraitu. Gazte maila nazionalean oso talde gogorrak eta jokalari ikusgarriak daude. Entrenatzaileei dagokienez, bestalde, gehienek planteamendu korapilatsuak aurkezten dituzte. Taktikoki eta estrategia aldetik oso landuak izan ohi dira. Hau da, oso maila altua zegoen.

Ohorezko Erregional Mailan ikusi beharko da nolako entrenatzaileak dauden. Hala ere, besteei begira egon aurretik, gure buruan eta metodoan sinisten dugu, badakigu-eta gauzak egiten. Espero dugu jokalariek nahi duguna ondo ulertzea.

**2010-2011 denboraldirako helburuei buruz berba egin duzue?**

Klubaren helburuen gainean egin dugu berba; oraindik ez dugu sailkapenari begirako helbururik zehaztu. Horren inguruan datorren astean [asteon] hasiko gara berbetan. Jokalarien zerrenda pasa didate baina oraindik ez ditut gehienak ezagutzen. Aldagela ondo ezagutu behar dut helburuez berbetan hasi aurretik.

Mondrako futbol egitura gogortzea gura du zuzendaritzak, futbol eskolari garrantzi handiagoa eman gura diote. Nire aldetik egin dezakedana da preferenteko taldearekin harremana egunerokoa izatea. Dagoeneko Fernando Urangarekin egon naiz eta lanerako erabateko borondatea erakutsi du. Hori ezinbestekoa da; fitxaketak ez-ohikoak direnean, harrobi barik urte gutxitan hilda zaude-eta.

**Andoni Azkargortak lortu duen seigarren postua sinatuko zenuke?**

Hala esanda, lehen urtean denboraldi lasai-lasai amaitzea ez dago batere gaizki. Baina zure taldea besteak baino hobeto dagoela ikusita gehiago eskatu behar diozu zure buruari. Edozelan ere, alderantzizkoa gerta daiteke eta asko sufritu. Finean, oraindik goizegi da galdera horri erantzuteko, Gabonetan esango dizut.

Gabonak inflexio puntua izango dira. Zuzendaritzak esan digu Gabonetan elkartuko garela, taldea nola doan aztertzeko. Orduan zehaztuko dugu denboraldiko helburua.

**Zenbat urtetarako sinatu duzu?**

Hau futbola da, hori ezin dezakegu jakin. Bost urtetarako sinatu dezakezu eta bi hilabetetan kanpoan egon, emaitzek ez dutelako lagundu. Hori ondo baino hobeto dakit eta onartzen dut.

**Elkarrizketa osoa lehen pertsonan bai, baina pluralean egin duzu; gu, gu eta gu. Talde moduan etortzea baldintza moduan jarri al duzu?**

Ez da baldintza moduan jarri dudala. Entrenatzaile bakoitzak lan egiteko modu ezberdinak ditu eta nik garrantzi handia ematen diet ondoan ditudanei. Unai Iglesias laguntzailea eta Pedro Rodriguez delegatua ezinbestekoak dira niretako.

Azkenik, asko eskertu gura dut Mondrak gugana jo izana eta eurengandik jaso dugun tratua.




Pozik dago Iban Rodriguez bere herriko taldea zuzenduko duelako; orain Mojategin egingo du lan datorren denboraldirako taldearekin. JOKIN BEREZIARTUA

AISIALDIA > UDA

# Umeendako udako aisialdi eskaintza gero eta zabalagoa da

Haurraren interesak, zaletasunak, trebeziak, prestakizun fisikoa eta heldutasuna hartu behar dira kontuan, besteak beste, aukera egokia egiteko

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Udako kanpamentuak, udaleku irekiak, baserri-eskolak, barnetegiak, lan kanpamentuak... eskaintza asko zabaldu da azken urteotan. Denetan hartzen dute kontuan umeen edo gazteen adina eta gero eta gehiago dira eskaintza espezifikoak egiten dituztenak; ingeleseko kanpamentuak, diabetikoendako kanpamentuak, gaitasun urriko umeendako kanpamentuak...

**EKINTZA ERAKARGARRIAK**

Jokoak, kirol jarduerak, irteerak... ikasturtean zehar eskolan gutxitan egiten dituzten ekintzetan trebatzeko aukera ematen dute udako aisialdi eskaintza horiek. Hezitzaileekin gazteek duten harremana eskolako irakaslearekin dutenarekin alderatuta ere oso ezberdina da. Bizikidetzak garrantzi handia hartzen du, gehienbat, barnetegietan eta udaleku itxietan. Gazteak bere autonomia eta besteekiko harremanak landu behar ditu; ahalegin hori egin beharra dauka.

Gure ibarreko herrietan ere dagoeneko prest dituzte hainbat proposamen. Gehienak aisialdia euskaraz egiteko aukera ematen duten programak dira. Izenemateak zabalik daude. Eskaintzaren, prezioen eta dirulaguntzen gaineko informazio zabala dago Interneten.

HEZKUNTZA > NERABEZAROA

# Adituek diote nerabezaroa familia osoarendako aldaketa garaia dela

Kontrakoa badirudi ere, nerabezaroan afektu beharra ez da desagertzen eta familiaren babesa behar dute gazteek

LARRAITZ ZEBERIO > ARRASATE

Gurasoei zuzendutako jardunaldiak egin ditu berriki Arrasaten AGIPAD elkarteak. Droga-menpekotasun arazoen inguruan egiten du lan elkarte horrek, eta bertako kide Mayi Sarasketak ohartarazi du gure inguru kulturalak ez duela askorik laguntzen nerabezaro-helduaro trantsizio atsegina egiten. "Nerabeen gurasoak ere bizitza erdiaren krisia igarotzen egon daitezke, euren gatazka, identitate pertsonalaren, harremanen eta profesionalaren definizioari aurre eginaz".

**NERABEZAROAREN EZAUGARRIAK**

"Egun, nerabetzat ditugun mendebaldeko neska-mutil askok eskola sisteman daude, ikasketa prozesu baten, edo lan bila. Gurasoen menpeko dira eta eurekin bizi dira oraindik", honela deskribatzen du egoera Mayi Sarasketak."Haurtzaroan, familian zentraturiko atxikimendua dute seme-alabek, baina pixkanaka berdinen taldean edo beste pertsona baten zentraturiko atxikimendua garatzen hasiko dira. Beraz, atxikimenduari dagokionez ere, trantsizio garaia da. Haien kezkak dagoeneko ez dira haurtzaroan zituztenak, baina ezta helduenak ere. Euren moda eta ohitura propioak izaten saiatzen dira, euren bizimodu eta balio propioekin".

**FAMILIAREN BABESA**

Nerabezaroan ere, baina, familia izango da seme-alabei babesa eta egunerokotasuneko erronka berriei aurre egiteko beharrezko afektua hobekien eskainiko diena. "Seme-alabek gurasoak gutxien behar dituztela dirudienean, laguntza handien behar duten momentua izan daiteke", esan du Sarakasketak. "Nahiz eta sentimenduak adierazteko moduak aldatu egiten diren, afektu beharra ez da desagertzen; jakinarazteko modua besterik ez dela aldatzen kontuan izan behar dugu gurasook. Beraz, nerabezaroa familia guztiarentzako aldaketa garaia izango da".



Nerabe taldea. LEONARD JOHN MATTHEWS



Rafael Cristobal, doktorea eta ume psikiatrian aditua. L.Z.

Rafael Cristobal > Doktorea

# "Erantzuna ikusita, argi dago guraso eskolak beharrezkoak direla"

L.Z. > ARRASATE

**Amaitu da Rafael Cristobalen gidaritzapean Arizmendi ikastolak martxan ipinitako guraso mintegiaren lehenengo ikasturtea. Balorazioa oso positiboa da, eta datorren ikasturtean jarraipena izango du.**

**Zelan joan da mintegia?**

Oso ondo joan da. Gurasoak gustura, gu gustura... Gainera, guraso komunitate bat sortu da; euren arteko harreman beroa. Nik uste dut talde honek iraunkortasuna izango duela. Duten erantzuna ikusita, argi dago guraso eskolak beharrezkoak direla".

**Haurdunalditik umeak urtea betetzen duen arteko etapa landu duzue, ezta?**

Bai. Etapa horretan azaleratzen diren berezko senak izan ditugu hizpide, eta horiek nola landu. Lehenengo hilabete horietan sortzen dira pertsonen oinarriak eta bereziko garrantzia du prozesu horretan berezko ahalera horiek ondo lantzea.

**Nola daki guraso batek ondo ari dela?**

Haurrak baditu seinaleak ondo edo gaizki ari garen antzemateko. Seinale argiena negarra da, eta, zentzu horretan, gezurra da haurra besoetan edukitzea kaltegarria denik.

**Datorren ikasturtean jarraipena izango du guraso mintegiak, ezta?**

Bai. Hilean behin elkartuko gara, zapatuetan, eta bi orduko saioa egingo dugu. Nik aurten eskaini dudan mintegiaren ardura Arantza Lexarragak eta Maia Etxeberriak hartuko dute, eta bigarren mintegi bat abiaraziko dugu; 1-5 urte bitarteko etapa oinarri hartuko duena. Mintegia guraso guztiendako dago zabalik, ez soilik Arrasatekoak direnendako edo Arizmendi ikastolako gurasoak direnendako.

**"Guraso komunitate bat sortu da (...) eta iraunkortasuna izango du"**

**"Bigarren mintegi bat abiaraziko dugu; 1-5 urte bitarteko etapa oinarri hartuko duena"**

> OSASUNA

## Sendagileek ohartarazi dute handitu egin dela entzumen arazoak dituzten gazteen kopurua

Igarri dute MP3 motako aparailuetan musika gehiegizko bolumenarekin entzuteagatik izan dela joera hori. "Arazo bakarra, gainera, ez da entzumen galera, zaratak sortzea baizik", esan du Txagorritxu ospitaleko sendagile Enrique Rodriguezek. Gazte askok zaratak entzuten dituztela diote eta horiek aparailuek sortzen dituztela. Gainera, inkesta baten parte hartu duten gazte euskaldunen %75ek MP3a txarto erabiltzen dutela onartu dute.

Testu hauek osorik irakurtzeko eta erantzuteko, zatoz gure webgunera
guraso.com



**> JAZZA ARAMAION**
Mikel Bikandi eta bere taldeak kontzertua eskaini zuen Sastiñan **> 30**



**> LOS GALERNA**
Surf-rock doinuek astindu zituzten Arrasateko kaleak zapatuan **> 31**



**> HAMARREKOA**
'80 egunean' filmaren zuzendari Joxe Mari Goenaga **> 40**






Eguraldiak lagundu ez arren, antolatzaileak gustura agertu dira Arrasateko Ardo eta Gazta Egunak (ezkerreko argazkia) eta UDAren garagardo festak (eskuineko argazkia) izandako erantzunarekin. ARGAZKILARIA

# Kirol elkarteen jaiak: diru-iturri eta topagune

**UDAK LEHENENGOZ**
Ostiral eta zapatuan garagardo festa izan zen Aretxabaletan

**ARDOA ETA GAZTA**
Mondrak urteroko dastaketa antolatu zuen zapatua

**ALOÑAK UZTAILEAN**
Uztailaren 15, 16, 17 eta 18an egingo dute, garagardo festa Oñatin

**TXOMIN MADINA** > ARRASATE

1998an Arrasate Rugby Taldeak garagardo festa antolatu zuenean hedapen handia izan duen joera bati eman zion hasiera: kirol elkarteek jan eta edanekin lotuta jaialdiak antolatzeari, hain zuzen ere. Arrasatearrak aitzindari izan ziren ez bakarrik Debagoienean, baita Gipuzkoan ere.

Joan den astean hamabigarren garagardo festa egin zuten Rugby Taldekoek Arrasaten. Asteburu honetan bestalde, UDAk bere garagardo festa egin du lehenengoz Aretxabaletan, eta Mondra futbol taldeak, bosgarren aldiz antolatu du Ardo eta Gazta Eguna. Uztaileko hirugarren asteburuan, Aloña Mendiren laugarren garagardo festa prestatu dute Oñatin.

**DIRUA BATU ETA GIZARTERATU**

"Lehenengo garagardo festa antolatu genuenean, kirol elkartea herriratzea zen helburua; gerora, baita dirua biltzea ere" azaldu digu Ramon Barrutia Arrasate Rugby Taldeko kideak. Eta hain zuzen ere, dirua lortzeko beharra da nagusi gainerako festetan ere.

Mondrako presidente Patxi de Andresen esanetan, azken urteotan klubaren diru iturriak murriztu egin dira: " Udalak %20 murriztu ditu laguntzak, eta gainerako erakundeek ez dute ezer ematen". UDAren kasua, Eduardo Altube presidenteak azaldu digunez, aurten elkartearen aurrekontua izugarri igo da eta horri aurre egiteko antolatu dute lehen garagardo festa. Helburu horrekin, era xumeagoan baina aurretik ere egin dituzte antzeko jaiak denboraldian zehar.

Baina dirua batzeaz gain, bada beste helbururik. "Kirol elkartea sail askok osatzen dute, eta sailon arteko harremana sendotzeko aukera ere bada" azaldu digu Aloña Mendiko Antton Inzak. Elkarteak herriratzea da beste helburuetako bat, eta honetan, ados daude denak. Barrutiaren esanetan, bere fruituak eman ditu gainera: "herrian sustraituta dagoen hitzordua da garagardo festa".

**LAN ASKO ESKATZEN DUTEN JAIAK**

Ospakizunek baina, lan dezente dute atzetik, bai antolatzen, baita sukaldean edo zerbitzari lanetan ere. Horretan kirol elkarteko kideak ez ezik, ingurukoak ere aritzen dira. "Jokalari, bazkide zein gurasoen artean, 70 pertsona inguru ibili gara Ardo eta gazta Egunean lanean" dio de Andresek. Oñatiren kasuan, garagardo festak lau egun irauten ditu, eguenetik zapatura, eta Inzaren esanetan, sail guztiak hartzen dute parte, bakoitzak egun ezberdin baten lan eginaz.

Dirua ateratzeko badira ere, jaiok antolatzearen kostua ez da makala. "Karpa alokatzeak 5.000 euro balio du" zehazten du Inzak. Era berean baina, azpimarratzen du herrian babes handia duela: "Udalak uzten dizkigu mahai eta aulkiak, hainbat enpresek beharrezko tresneria... Krisiarekin uste genuen laguntza gutxiago izango genuela, baina ez da hala izan". Lan gogorra, baina denek esan diguten legez herritarren erantzun ona jasotzen duena.

ESANAK

**"Aurrekontua asko igo zaigu, eta diru iturri berriak lortzeko erabaki genuen garagardo festa antolatzea"**
**Eduardo Altube** > UDAko

**"Herrian babes handia dugu; uste genuen krisiarekin laguntza gutxiago izango genuela, baina ez da hala izan"**
**Antton Inza** > Aloña Mendi

**KONTZERTUA** > MIKEL BIKANDI QUARTET

# Jazza, gertuko eta erakargarri Sastiñan

**NON:** Sastiñan.
**EGUNA:** Egubakoitza, ekainak 11.
**ZENBAT JENDE:** 30 lagun inguru.
**IRAUPENA:** Ordubete.

**TXOMIN MADINA** > ARAMAIO

Aditu edo zale ez direnentzat, jazza ez da musika estilo erraza. Ondo sar daiteke tabernan, lagunekin tragoxka bat hartu bitartean. Baita medikuaren itxarongelan ere. Baina beste kontu bat da ohituta ez egonez gero jazz kontzertu bat jarraitzea. Egubakoitzean Mikel Bikandi eta bere mutilek Aramaion emandako kontzertuan argi utzi zuten baina, piezak ondo aukeratu eta hobeto joz gero, jazza edozeinen gozagarri izan daitekeela.

Sastiñan izan zen emanaldia, formatu txikiko ikuskizunetarako toki aproposa den aretoan.



Mikel Bikandi gitarra jotzailea eta haren taldekideak, Sastiñan. I.A.

**LASAIETATIK ARINETARA**

Mikel Bikandi gitarra jotzaile bizkaitarra saxo, bateria eta kontrabaxu jotzaileak lagun zituela aurkeztu zen ikusleen aurrean. Ez ziren asko izan jotako piezak, zortzi denera; hori bai, Bikandik berak azaldu zuen moduan, denak berorrek konposatutakoak eta gehienak familiako kideei eskainitakoak.

Sastiñan entzun ahal ziren lehen jazz doinuek denboran atzera bidaiarazi zituen entzuleak, New Yorkeko kale eta klub ilunetara, film beltzetako eszenetara. Doinu erakargarriak izan ziren lehenengoak, konplexuak, baina jarraitzeko ez hain errazak.

Emanaldiak aurrera egin ahala baina, erritmo arinagoak jo zituzten, eta bati baino gehiagori zaila egin zitzaion aulkian geldi mantentzea. Adierazgarria da era berean, kontzertua amaitzean hastean baino jende gehiago zegoela Sastiñan: aretoko ateak zabalik egon ziren uneoro, eta kalean zegoen bat baino gehiago erakarriko zituztela jazz laukotearen doinuek.

**GUZTIZ INSTRUMENTALA**

Abeslari gabeko laukotea osatzen dute Mikel Bikandi eta bere mutilek, baina instrumentuak eurak bihurtu ziren ahots, batez ere gitarra eta saxofoia. Azken honek leunki gidatu zituen entzuleak abestietan barna eta Bikandik berak gitarrarekin duen trebezia erakutsi zuen: momentu arinetan arin, momentu lasaietan lasai, argi utzi zuen bizkaitarrak zertan ari zen ederki asko ezagutzen zuela.

Musikariek erakutsitako jarrera lasaiarekin, euren arteko konplizitatea agerian utziz eta jazzarekin lotu daitezken mistizismo eta handinahiak alde batera lagata, asteburuak hasiera aparta izan zuen Aramaion.

ENTZULEEN IRITZIA



**Olga Parra**

"Asko gustatu zait kontzertua: musika, konposizioa... denak oso ondo egon dira. Lekua bera ere egokia zen, bai egoteko eta baita kontzertua jarraitzeko ere. Ez naiz oso jazz zalea, baina tarteka entzuten dut. Ondo iruditzen zait egubakoitzetan horrelako ekimenak burutzea, giro berezia sortzen da".



**Igor San Juan**

"Berandu samar heldu gara, baina oso gustura egon naiz kontzertuan. Ez nuen taldea aurrez ezagutzen, baina ikusten da gazteak izan arren, asko ikasitakoak direla. Nik gustuko dut jazza eta fama txarra izan dezake baina estilo askotarikoa izan daiteke eta entzun egin behar da: beti aurkituko duzu gustuko zerbait".



**Nerea Uribarren**

"Egia esan ez naiz oso jazz zalea, ulertzeko musika zaila egiten zait batzutan, baina gaur hemen oso gustura egon naiz, errez entzun dut. Oso ondo iruditzen zait Txirritolak horrelako ekimenak antolatzeko hartu duen erabakia; Sastiñak berak ere laguntzen du, leku aproposa da horrelako kontzertuetarako".



**Tere Arriolabengoa**

"Niretzako sorpresa izan da kontzertu hau: pentsatzen nuen beste zerbait entzungo nuela... Baina jazza izan da, eta oso gustura egon naiz! Jazza asko gustatzen zait, baina Aramaion sekula entzun gabe nengoen; herriarendako zerbait ezberdina izan dela esango nuke. Egubakoitz arratsalderako, plan bikaina!".



**Amaia Irizar**

"Pentsatzen nuen bakarlaria izango zela, ez nuen taldea espero, eta egia esan gustatu zait: polita izan da, lasai entzutekoa. Akaso aterpean beharrean, kanpoan entzuteko kontzertua zen, baina ondo egon da. Horrelako kontzertuekin gainera, egubakoitz arratsaldeari beste kolore bat ematen zaio".



Kontzertu arrakastatsua eskaini zuen Arrasateko taldeak. GOIENKARIA

**MUSIKA** > KONTZERTUA

# Los Galerna, surf-rock kementsua

**NON:** Taupa tabernako terrazan.
**EGUNA:** Zapatua, ekainak 12.
**ZENBAT JENDE:** Terraza beteta.
**IRAUPENA:** Ordu eta erdi.

**NEREA MENOR** > ARRASATE

Arrasateko Taupa tabernako terraza leporaino betetzea lortu zuen Los Galerna taldeak. Euriak etenik eman ez zuen arren, jarraitzaileak ez ziren kikildu eta arkupeen barruan eta kanpoan ere, aterki edo eguzkitakoaren azpian, jendetza ederra biltzea lortu zuten.

*En el purgatorio* disko berriaren aurkezpen kontzertua izan zen zapatukoa eta tabernan bertan erosteko aukera egon zen, cd edota binilo formatuan.

**KALITATEZKO MUSIKA**

Surf- rock musika instrumentala egiten duen taldea da Los Galerna. Egunero ez da egoten horrelako musika entzuteko aukera. Ezagutzen zituztenek kontzertuaz gozatu eta ezagutzen ez zituztenek ezusteko atsegina jaso zuten zapatuan.

Beste behin ere kontzertu arrakastatsua Taupako terrazan.

**ALDARRIKAPENA** > ASTE ZAPATISTA

# Amaiera arrakastatsua izan zuen Aste Zapatistak

## Bazkari mexikar jendetsua eta ikuskizun eskaintza zabala izan ziren zapatuan

**N.M.** > ESKORIATZA

Amaiera bikaina eman zioten zapatuan Aste Zapatistari. Jende askok parte hartu zuen egunean zehar antolatu ziren ekintzetan, baita bazkarian ere "115 lagun inguru bildu ginen bazkari mexikarrean", diote antolatzaileek.

Luis Ezeiza eskolaren eguna ere ospatu zen zapatuan, "elkarrekin zerbait egin nahi genuen, eta malabaristak egon ziren frontoian". Gaueko kontzertua hasi baino lehen, *Eta nik ere sagar bat daramat nire baitan* ikuskizuna eskaini zuten Miren Gaztañaga eta Ander Lipusek.

**DIRU LAGUNTZAK**

"Autogestioa gure proiektuaren zati bat finantzatzeko balio duen arren, Udalaren dirulaguntza jasotzen dugu eta lokalak lagatzen dizkigute", azpimarratu nahi izan dute antolatzaileek.



Miren Gaztañaga eta Ander Lipusen ikuskizuneko irudi bat. J.C.



GURE TALDEAK

## Emon



Ezkerretik eskuinera, Oihane, Ekaitz, Oier, Isusko, Ander, Joanes eta Aritz. EMON

# "Zazpi lagun eta zazpi estilo: barietatea nabaria da diskoan"

Emon taldeak lehen diskoa grabatu du Eibarko Legarre estudioan; nahasketak eta masterizazioa Azkarate estudioan egin ditu Angel Katarainek

Hamar kantu grabatu dituzte; eta Betagarri, Esne Beltza eta Sagarroi taldeetako kideen kolaborazioa izan dute kantu batzuetan

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

**Oihane, Ekaitz, Oier, Isusko, Ander, Joanes eta Aritz dira Emon taldeko kideak. *Piztu herria* izeneko diskoa kaleratu berri dute, eta dagoeneko aurkeztu dute: Bergarako jaietan egin zuten kontzertua. Diskoaren gainean egin dugu berba Aritz Alustitzarekin.**

***Piztu herria* izena ipini diozue diskoari. Zergatik izen hori? Zer edo nor suspertu gura duzue?**

Jendea aktibatu, alaitu egin nahi dugu, lorik har ez dezan. Bizi izan dugun eta bizi dugun egoera honetan alaitasuna kutsatu nahi diogu jendeari. Era berean, nork bere aldarrikapenak ozen esatera bultzatu eta animatu gura dugu. *Carpe diem* oihuka dezatela!

**Gustura zaudete emaitzarekin?**

Diskoarekin oso gustura gera-tu gara. Lehena izanda apustu sendoa zen guretzat. Beldurra ere bagenuen, baina diskoa esku artean dugun honetan, oso pozik gaude. Bergarako jaietan aurkeztu genuen eta entzuleak gustura egon ziren. Uztailean bideoklipa grabatuko dugu.

**Grabazioa Eibarko Legarren egin zenuten. Zer moduz?**

Hainbat estudio aztertu ondoren, Legarren grabatzea erabaki genuen. Esperientzia ikaragarria eta, aldika, neketsua izan da. Baina asko disfrutatu dugu. Teknikaria Ander Barriuso eibartarra izan da. Proiektuan sartuta egon da, eta biziki eskertzen diogu. Nahasketak eta masterizazioa Azkarate estudioko Angel Katarainek egin ditu.

**Hamar kantu grabatu dituzue. Zeri buruzko letrak dira?**

Bizi garen herrian bizi garenez, aldarrikapen kutsuko letrak atera zaizkigu. AHT eta halako proiektuek kezkatzen gaituzte, eta, horregatik, horren kontrako oihua zabaltzen dugu. Euskal Herriko gatazkak ere kezkatzen gaitu, komunikabide batzuen jarrerak... Bestalde, lekua egin diegu aldarrikapenak ez diren kantuei; adibidez, Mexikon gertatutako maitasun istorio bat; Jamaikako reggaearen sorreraren istorioa; eta euskal parranda baten istorioa kontatzen ditugu. Garbi utzi nahi dugu nork bere nortasunaren alde egin behar duela, aurrekoari begiratu gabe.

**Abestiren bat aukeratzekotan, zein hartuko zenukete?**

Oso zaila da bakarra aukeratzea, guztiek dute-eta xarma. Baina batzuk nabarmentzearren, kolaboratzaileek parte hartu duten kantuak aipatuko nituzke: Betagarriko Iñakik *Lerro zuzena* abestian sartutako ahots indartsua, Esne Beltzako Zigorrek *Izan zu* abestian sartutako gitarra doinuak eta Sagarroi taldeko Gorka Baskaranek hainbat abestitan sartutako perkusioak.

**Zazpipertsonak osatzen duzue taldea. Errazagoa ala zailagoa da lan egiteko?**

Alde onak eta txarrak ditu. Antolakuntza ona behar da aurrera egiteko. Dena den, ikaragarria da zortzi pertsona oholtza gainean ikustea. Gainera, zortzi kide izateak barietate handia dakar estilo aldetik, eta hori guztiori nabaria da diskoan eta zuzenekoetan.

**Nolako musika egiten duzue?**

Ez da erraza, baina gure musika festarako musika dela esango genuke. Disko honetan ska, reggae, cumbia eta rock ukituak entzun daitezke. Hala ere, ez dugu estilo jakin batean geratu nahi. Auskalo zer irtengo den bigarren diskoan!

**Nolakoak zarete zuzenekoetan?**

Zuzeneko bizia daukagu. Goazen lekura goazela jendea mugiarazi eta giro ona jartzea dugu helburu, eta, oraingoz, lortu egin dugula esango nuke. Festarako eta ondo pasatzeko taldea gara.




### Jai girorako ondo landutako kantuak

Helduta, aurrerapauso bat emanda, aurkitu dugu lan honetan Emon taldea. Bergararrek jakin dute euskal folka, ska eta bestelako doinu beroak euren emaitzean ondo uztartzen.

Melodia handiko kantuak dira, ska ukitu nabarmena ematen diete tronpetekin batzuetan; trikiak pisu handiagoa hartzen du beste batzuetan; eta Balkaneetako musikaren, dub musikaren eta Euskal Herrian egiten den poparen aztarnak ere badituzte kantuek.

Jai girorako talde apropos eta txukuna!

**Iker Barandiaran**


Aretxabaleta eta Eskoriatzako taberna eta jatetxeen gida
hemen bada
giro!
Arlutz taberna
TABERNA
ARLUTZ
Gustuko musika
Mitarte 16. ARETXABALETA Tel.: 943 79 32 34
Anduaga Jatetxea
Eguneko menua | Bokatak
Plater konbinatuak | Errazioak
Araba Ibilbidea 31, behea | Aretxabaleta | 943 79 96 54
Dorleta
BAR DORLETA
Loteria eta kinielak
DORLETA TABERNA
Loramendi, 8 Tel.943 79 94 15 ARETXABALETA
OTZETA JATETXEA
Aranburuzabala 9 ESKORIATZA Tel.: 943 71 31 67
BASABE
Menuak eta afariak
Basabe poligonoa ARETXABALETA 943 77 31 19
HIRUSTA JATETXEA
Ilargi plaza 4. Tel.: 943 79 06 57
Matikua jatetxea
Azatza auzoa ARETXABALETA 943 79 16 68
Gurea
TABERNA
Lotoak eta kinielak
Durana 32 Aretxabaleta Tel.: 943 79 20 64
IOSU
taberna
harategia
Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak
Mitarte 1
Tel.: 943 77 03 08

# iragarkilaburrak.com

**943 25 05 05 sailkatuak@goiena.com**
**http://www.goiena.net/sailkatuak**

Egueneko 18:00ak arte jasotako iragarkiak bakarrik iragarriko ditugu.
Ordu horretatik aurrera ez da onartuko aldaketarik eta ezta iragarkia bertan behera uzterik ere.

**PARTIKULARREN IRAGARKIAK ORDAINDUTAKO ATALAK:**

**ETXEBIZITZA SALDU/ALOKATU. LOKALA SALDU/ALOKATU. GARAJEA SALDU/ALOKATU. MOTORRA SALDU/ALOKATU.**

Iragarki partikularretan astebete baino gehiagoz argitaratu nahi izanez gero, prezio bereziak aplikatuko dira.
GOIENKARIAk ez du argitaratzen diren iragarkien ondorioz sor daitezkeen operazioen erantzukizunik.

## 1/ ETXEBIZITZAK

### 101. SALDU

**Abadiño.** Etxebizitza salgai Matienan: hiru logela, sukaldea, jangela, komuna, ganbara handia eta balkoia. 650-82 35 41

**Altsasu.** Familiabakarreko etxea salgai Altsasun. Bajera, txokoa, lorategia, sukaldea, egongela, 3 komun eta lau gela. Prezioa adosteko. 609-78 96 86.

**Altsasu.** Etxe atxikia saltzen dut Altsasun, leku lasaian, Urbasara begira, 4 logela, 4 komun, sukaldea, egongola, txokoa eta lorategirarekin. Harremanetan jartzeko deitu telefono honetara: 609-78 96 86 (Iker)

**Aretxabaleta.** Eraikuntza berriko etxea salgai. 96 metro koadro, hiru logela, bi komun, terraza, trastelekua eta garajea. 276.000 euro. Eskriturak prezioan sartuta daude. 649-25 23 51

**Arrasate.** 110 metro koadroko duplex polita erdialdean, guztiz jantzita. Bi logela (hiru egiteko aukera), bi komun, egongela eta sukaldea. Guztiz berriztuta. 65 metro koadroko ganbara. Berehala bizitzera joateko aukera. Prezio oso interesgarria. 673-32 78 91

**Arrasate.** Bi etxebizitza salgai erdigunean. Pablo Uranga eta Iturriotz kaleetan. Bata bi logelakoa eta bestea hirukoa. 630-39 36 50

**Donostia.** Etxea salgai. $68m^2$, altua, argitsua eta izugarrizko bistak. Guztiz berritua. Baita teilatua eta etxaurrea ere. 51.000.000 pezeta. 677-65 85 09

**Durango.** 98 m2-ko etxebizitza oso eguzkitsua, 3 logela, sukaldea- jangela, bainugela eta komun leihodunak, 2 terraza partikular 12 m2 eta 8 m2-koak eta baita ere terraza komunitarioak. Altzariz betea eta guztiz jantzia, berogailuaren galdara jarri berria, 4 armario enpotratu, aluminiozko leihoak, ateak eta zorua aldatuta. Garajea eta igerilekuarekin. Telefonoa: 655-70 46 84

**Elgeta.** 85 metro koadroko duplexa salgai. Hiru logela, bi bainugela, egongela beheko suarekin eta berogailua. Guztiz jantzia. 180.000 euro negoziagarri. Aukera aproposa gazte edo bikotearentzako. Zatoz ikustera. 685-75 18 91

**Elorrio.** Etxebizitza salgai Elorrion. Guztiz berriztua, ez dauka igogailurik. 3 logela, komuna, sukaldea, egongela eta trastelekua. Oso eguzkitsua eta oso polita; erdi jantzita, bizitzera sartzeko gertu. Etorri ikustera! 617-78 71 65

**Etxarri Aranatz.** 90 metro karratuko bigarren eskuko pisua Etxarri Aranazko erdigunean, baina zonalde lasaian. 1. esk. Erabat jantzita. 3 argi, aluminioko leiho bikoitzak, beheko sua, berokuntza eletrikoa (gaueko tarifa). Eskailera gastuak 30 euro urtean. 3 logela, sukaldea, egongela-jangela, komuna, despentsa eta 20 metro karratuko trastelekua etxabean. Prezioa adosteko. 636-15 85 35 (Bitori)

**Iurreta.** Fray Juan Askondo kalean kokatutako etxebizitza salgai. Hiru logela, komuna, egongela eta sukaldea, 78 metro karratu. Igogailua dauka. Prezioa: 210.360 € 94-681 19 48

**Lana.** Etxeak ditu: 3 logela, egongela (beheko sua du), sukaldea (sutegi ekonomikoa berria), komuna, ganbara eta ukuikuak. Teilatua oso ongi dago. Baratzeak 150m ditu eta era ekologikoan landu da. Inguruak mendi eta naturazaleentzat ezin aproposagoak. Gasteiztik 45 min eta Lizarratik oso gertu. Egokia asteburu eta oporraldietarako. Ikustea merezi du. 699-24 86 99

**Laredo (Kantabria).** Izugarrizko bistak dituen pisua hondartza ondoan. Urbanizazio pribatuan, berdegune askorekin, haurrentzako jolasguneak, tenis zelaia, saskibaloi zelaia, autoa garbitzekoa... Puntaleko zonaldean . Hall zabala, egongela eta jangela zabalak, bi bainugela osatu, 4 logela bakoitza bere armairu enpotratuarekin, sukaldea, elektrogailu berriekin osatua, ur beroa eta gas naturakin dabilen berogailua. 2 Igogailu eta atezain zerbitzua. Ezin obeto dago bizitzera sartzeko. Partikularra. 690-07 15 72.

**Oñati.** Lope Agirre kalean 110 metro koadroko duplexa salgai. Sukaldea, egongela, 4 logela eta 2 komun. 372.000 €. Deitu 659-53 87 62 telefonora.

**Oñati.** Aukera bikaina. Etxebizitza salgai Olakuan. Egongela, hiru logela, sukaldea, bi bainugela, terraza. Laugarren pisua. 228.100 euro (38.000.000 pta). Garajea aukeran. 945 22 26 62 edo 615 70 86 04

**Oñati.** San Anton kalean estreinatzeko etxebizitza salgai. Bi logela, egongela, sukaldea eta komuna. Egoera onean eta jantzita. Trastelekua eta patioa ere baditu. 665-71 77 96

**Oñati.** 67 metro koadroko etxebizitza salgai erdigunean. Bi logela, komuna, jangela, egongela eta sukalde guztiz hornitua. 264.000 €. 659-72 06 64

**Oñati.** San Lorentzon etxebizitza salgai. 96 metro koadro gehi garaje itxia gehi ganbara. Lau logela, egongela, sukaldea, bainugela, komuna eta bi terraza. 634 43 78 19

**Santo Domingo de la Calzada** (Errioxa). Errioxan. Bañaresko kanpinean. Bi gela, sukaldea, komuna eta egongela. Deitu 678-62 40 99 telefonora.

**Tolosa.** (Voith-Gorostidi) Eraikuntza berriko etxebizitza salgai (75m2). Promotorearen bidez zuzeneko salmenta. Sukalde eta 2 komun ekipatuak, egongela handia eta 2 logela. Argitsua. 2 terraza eder eta baita trasteroa ere. Garagea eskuragarri. Premiazko salmenta. 658-72 92 88

**Zestoa.** Etxebizitza ia berria (6 urte) salgai Zestoan. 85m2, 3 logela, 2 komun, sala, sukaldea, trasteroa eta garaje itxia ($18m^2$). Eguzkitsua eta oso egoera onean. 679-80 91 90 eta628-06 94 12 .

**Zornotza.** Etxebizitza salgai Euban. 3 logela, egongela bat, sukaldea, 2 bainugela, ganbara eta berogailua. 345 m2-ko lursailarekin. Aukera paregabea! Telefonoa: 695-70 18 58

### 102. EROSI

**Durangaldea.** Atxondoko bikote gaztea baserri bila dabil durangaldean, erosteko prest berriztatua edo berriztatzeko. Baserri erdia ere hartuko genuke. 645-72 69 37 (Usoa)

### 103. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Etxebizitza eguzkitsua ematen da errentan San Andresen. Erdigunetik bost minutura. Sukalde handia, egongela, komuna, bi logela eta ganbara. Igogailuarekin. Bikote batentzat aproposa. 650-40 19 95 edo 680-37 90 34

**Cadizen**, Puerto Santa Marian, Valdelagrana, Valdemar urbanizazioa. Hondartzako lehenengo ilaran etxebizitza ematen da errentan. Uztail osoan eta abuztuko lehenengo hamabostaldian. Bi logela, aparkalekua, igerilekua, tenisko pistak, aire girotua. 677 50 39 18

**Castello (Peñiskola).** Apartamentuak errentan. Hamabostaldika. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 948-41 00 79 edo 616-95 04 00

**Conil (Cadiz).** Hiru apartamentu alokatzen dira. Garajea dauka. Prezio bereziak uztailean. Telefonoa: 653-73 34 57

**Donostia.** Etxebizitza ematen da errentan udarako, hamabostaldika edo ikasturterako. Hiru logela, guztiz jantzia. Hondartzatik gertu. 669-42 94 15

**Gasteiz.** Ikasleentzat pisua alokatzen da Gasteizen.Interesatuek, deitu 945-30 01 30 telefono zenbakira.

**Irurtzun.** 3 logela, bista ederrak eta herri erdian. Interesatuek 600-38 74 00 telefonora deitu.

**Kantabria (Ruesga bailaran).** Txalet txiki berriztua alokatzen da. 653-73 34 57

**Marina D'Or.** Oropesa del Mar (Castello). Apartamentua ematen da errentan. Bi logela, egongela, sukaldea, bi komun eta terraza. Aparkatzeko plaza eta igerilekua. Hondartzako lehen lerroan. 685 75 62 51 edo 652 73 94 88

**Oñati.** Hiru logelako etxea errentan. Bi bainugela, sukalde jantzia, egongela, bulego txikia, bi balkoi eta gas naturaleko berogailua. Laugarren solairua, igogailuarekin. 677-21 21 62

**Otxandio.** Hiru logelako etxea alokagai. Guztiz jantzita. Telefonoa. 945-45 00 52

**Peñiskola (Castello).** Apartamentuak errentan. Hamabostaldiak. Bi logelakoak. Guztiz jantziak eta hornituak. Hondartzatik 50 metrora. 948 41 00 79 edo 616 95 04 00

**Ribadesella (Asturias).** Udarako, etxebizitza ematen da errentan. 5 pertsonarendako egokia. 80 euro egunean. 695-78 22 47

**Torrevieja (Alacant).** Atikoa ematen da errentan. Urbanizazio lasaia, hondartzatik gertu. 4-6 pertsonarendako lekua. Bi logela, terraza, solarium pribatua eta elkarteko garaje eta igerilekua. 609 07 41 27 edo 649 88 79 17

**Vieux Boucau (Landak).** Apartamentua alokatzen dot udan Landetan, Vieux Boucaun, Boucanier urbanizazioan. Igerilekua, hondartza. Apartamentuak denetik dauka, labadora, telebista... Leku bikaina. 94-673 27 69 eta 656-75 95 37. E-posta: *joseba@erroteta.com*

### 104. ERRENTAN HARTU

**Bergara.** Etxebizitza hartuko nuke errentan. 609-38 86 47

**Bergara.** Etxebizitza errentan hartuko nuke Bergaran. 699-09 46 26

**Bilbo.** Bilbon errentan hartzeko pisu bila gabiltzan lau ikasle gara. Errentagatik 800 euro-1.000 euro inguru edo gutxiago eskatzen duen pisu bat nahi genuke, ahal bada 4 logelarekin edo bestela 2 pertsonentzako lekua duen 3 edo 2 logelarekin. Pisua Alde Zahar edo Abando inguruan egotea apreziatuko genuke. Jende arduratsua gara. Gurekin harremanetan jarri nahi ezkero, idatzi mesedez *pisubila11@gmail.com* helbidera. Eskerrik asko.

**Bilbo.** Datorren ikasturterako bilbon pixu bila gabiltzan bi neska gara. *pixubila@gmail.com*

**Donostia.** Bikote batek honako auzo hauetan pisu edo apartamentu bat alokatuko luke: Errotaburu, Lorea, Igara edo inguruan. Oso lan egonkorrak ditugu. Alokairua luzerako. 686-65 97 20.

**Durangaldea.** Laukotea etxe bila dabil, bikote bat gara txakur eta katu banaz eta etxe bila gabiz durangaldean. Pisua, baserria, etxea orokorrean errentan hartzeko prest gaude. Animaliak beti pisuan bizi izan dira eta ondo portatzen dira. Telefonoa: 645-72 69 37

**Eskoriatza.** Eskoriatzan ikasten dugun 3 neska gara eta hurrengo ikasturterako (2010 iraila-2011 ekaina) pisu bat alokatu nahiko genuke. Pisuak 3 logela izan beharko lituzke eta ez litzaiguke inportako etxeak 4 logela izatea eta beste norbaitekin konpartitzea. 635-75 97 10

**Eskoriatza.** HUHEZIko hiru neska datorren ikasturterako etxebizitza bila ari gara. Deitu 635-20 25 76 telefonora.

**Mediterraneo** aldean 4-6 pertsonendako etxebizitza hartuko genuke errentan abuztuan. 653-01 76 67

### 105. ETXEAK OSATU

**Arrasate.** Logela bat ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 655-71 77 85 edo 943-79 56 64

**Arrasate.** Logela ematen da errentan erdigunean. Deitu 619-78 63 41 zenbakira.

**Arrasate.** Logela ematen da errentan unibertsitatetik gertu. 663-72 37 44

**Arrasate.** Etxea osatzeko gela bat dugu errentan. 630-71 35 83

**Arrasate.** Logela ematen da errentan. 619-78 63 41

**Arrasate.** Logela hartuko nuke errentan, prezio onean. Miguel. 943-79 74 13

**Bergara.** Gela baten bila nabil, errentan hartzeko. 699-66 33 63

**Bergara.** Logela bat ematen da errentan, sukaldea erabiltzeko aukerarekin. 230 euro hilean. Natalia. 670-85 86 68

**Bergara.** Logela ematen da errentan. Nahiago dugu kanpotarra izatea. 655-71 41 24

**Debagoiena.** Irailaren hasieratik Gabonak arte Mondragon Unibertsitatera (HUHEZI) etorriko diren Erasmus ikasleentzako logelak behar dira. Txema 656-77 66 32

**Durango.** Logela alokagai Ibaizabalen. Etxe berria da. Trena eta autobusa oso hurbil dituena. Telefonoa: 652-865 780

**Eskoriatza.** Pertsona arduratsua behar dugu etxebizitza osatzeko. Etxe berria da eta erdigunean dago. 650-82 83 48

**Iruñea.** Uztailean sartzeko, neska euskalduna eta langilea behar dugu pisua osatzeko Iruñeko Alde Zaharrean. Oso merkea da, hilero 160 euro. Argitsua eta txukuna. 616-71 69 66

**Oñati.** Logela ematen da errentan. 688-61 57 79

**Oñati.** Neska gaztea naiz eta neska baten bila nabil etxea osatzeko uztailaren 1etik aurrera. 677-37 04 81

## 2/ GARAJEAK

### 201. SALDU

**Arrasate.** 27 metro koadroko garajea salgai Obenerrekan. Ate automatikoarekin. Bi kotxe sartzeko aukera. Prezioa aztergai. Interesatuok deitu zenbaki honetara eta Anagatik galdetu: 662 34 77 77

### 203. ERRENTAN EMAN

**Arrasate.** Garaje bat alokatzen da unibertsitatetik oso gertu (Usaetxe enparantzan), 60 euro hilean. *soliveira@hotmail.es* edo 678-53 82 48

**Bergara.** Bergara. Boni Laskurain kalean, Santa Marina parean, garaje itxia ematen da errentan. 652-77 52 26

**Gasteiz.** Garajea alokagai Gasteizen, Zaldiaran Plazan, kotxe txiki batentzat. 50 euro. 647-26 28 27

### 204. ERRENTAN HARTU

**Arrasate.** Garaje itxia hartuko nuke errentan Arrasate pasealekuan edo San Andresen. 652-77 13 77

**Azpeitia.** Garaje bat nahiko nuke errentan hartu karabana bat gordetzeko. Berdin zait jabearekin konpartitzea. Gehienez 50 euro hilabeteko ordainduko nituzke. Interesatuek mesedez deitu 659-82 94 40 zenbakira.

**Oñati.** Garaje itxia behar dut Kale Zaharrean edo aldameneko kaleren batean. 647-24 40 54

## 3/ LOKALAK

### 301. SALDU

**Irura.** Lokala Iruran, Laskibar bailaran, N-1 ondoan. 118 m2 eta 78.000 euro. 645-72 19 47.

**Urretxu.** Pabilioi industriala alokatu edo saltzen da. Urretxuko Mugitegi industrialdean. 200 metro karratuko azalera eta 8 metroko altuera. Prezio onean. Deitu 657-77 97 52 telefono zenbakira

## 4/ LANA

### 402. ESKAERAK

**Aretxabaleta.** Emakumea gertu nagusiak eta umeak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Mari. 943-53 33 92

**Aretxabaleta.** Aretxabaleta edo inguruetan bertako neska gaztea eskaintzen da uztailean, ordutegi arazorik gabe, haurrak zaintzeko. 663-73 49 95

**Aretxabaleta.** Aretxabaletako neska gazte arduratsua uztailean haurrak zaintzeko prest debagoienan. 696-44 43 99

**Aretxabaleta.** Aretxabaletako neska gazte arduratsua uztailean haurrak zaintzeko prest. 696-44 43 99

**Arrasate.** Emakumea gertu sukaldean lagundu, plantxa edo garbiketak egiteko, orduka. 647-16 40 49

**Arrasate.** Gizona gertu garbiketak egin, nagusiak zaindu edo sukalde laguntzaile lanetarako. 634-84 41 94

**Arrasate.** 20 urteko mutila gertu eraikuntzan, garbiketan edo zerbitzari lanetan aritzeko. 619-78 63 41

**Arrasate.** Tabernako zerbitzari moduan urte askoan ibilitakoa naiz. Herriko jaietan edo astebukaeretan lan egingo nuke Debagoienan. Edorta. edortamendi@yahoo.es 617-89 41 03

**Arrasate.** Neska batek lana egingo luke orduka. 677-73 79 59

**Arrasate.** Arrasateko mutil euskalduna gertu basoak garbitzeko: belarra, narrak... Joxe. 653-01 83 43

**Arrasate.** Emakume bat lan desberdinetan aritzeko gertu. 695-75 42 45

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. Deitu 634-43 28 87 telefonoara.

**Arrasate.** 18 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaintzeko gertu. 678-02 04 36

**Arrasate.** Mutila gertu zerbitzari, garbiketa, iturgin laguntzaile edo peoi lanetan jarduteko. 671-84 71 71

**Arrasate.** Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 660-13 94 95

**Arrasate.** Emakume arduratsu, zintzo eta langilea gertu garbiketa lanak egin edo nagusiak zaintzeko. 646-16 53 87

**Arrasate.** Bertako neska gertu nagusiak zaintzeko. Esperientzia daukat. 618-00 08 28

**Arrasate.** Emakume euskalduna gertu orduka lan egiteko: nagusi edo umeak zaindu, plantxa eta abar. 699-54 17 27

**Arrasate.** Emakumea gertu nagusi edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanetan jarduteko. 659-37 41 95

**Arrasate.** Emakumea, 51 urtekoa, gertu pertsona nagusiak zaintzeko. Esperientziarekin. 943-79 60 89

**Arrasate.** 20 urteko mutila prest nagusiak zaintzeko, egunero ordu batzuk. Esperientziaduna naiz. 609-98 02 52

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu. 665-72 57 64

**Arrasate.** Bergara edo Arrasate. Neska euskalduna gertu pertsona nagusiak zaindu edo etxeko lanak egiteko. 943-53 27 17 edo 616-84 13 07

**Arrasate.** Gizona pertsona nagusiak zaintzeko gertu. Orduka edo etxean egoteko prest. 697-54 28 76

**Arrasate.** Debagoiena. Neska gertu pertsona nagusiak edo umeak zaintzeko eta garbiketa lanak egiteko. Orduka edo etxean bertan bizi izaten. Erreferentzia onak. 638-93 11 48

**Arrasate.** Neska gertu etxean bertan bizi izaten lan egiteko. 679-04 42 68

**Arrasate.** Etxeak garbitzeko 34 urteko neska brasildarra naiz eta Mari daukat izena. Etxeak garbitzeko prest nago. Ez daukat arazorik ordutegiarekin eta lehenago ere etxeak garbitzen aritu izan naiz. Nagusiak zaintzeko ere prest nago. 688-80 21 29 edo 943-79 51 28

**Arrasate.** Arrasate edo Bergara. Emakumezko batek etxeko lanak egingo lituzke. 615-72 15 17

**Arrasate.** 17 urteko neska, batxilergoa bukatu berri, udan umeak zaindu edo etxeak garbitzeko gertu Debagoienan. 665-72 57 64

**Azpeitia.** Neska bat eskaintzen da partikularrak, umeak zaintzeko edota denda batean lan egiteko 665-75 68 73

**Azpeitia.** 20 urteko neska euskalduna, haurrekin lanean esperientziaduena bai begirale moduan, zaintzaile moduan... Arratsaldez haurrak zaintzeko prest egongo nintzateke. Interesatuak deitu zenbaki honetara: 606-42 64 14

**Azpeitia.** 18 urteko neska euskaldun bat, haurrak zaintzen espezializatua dagoena, udan goizez haurrak zaintzeko prest

KOROSTI
INMOBILIARIA
**Ibargarai 3 • BERGARA**
**Tel. / Faxa: 943 76 97 97**
**www.inmokorosti.com**

**ETXEBIZITZAK SALGAI**

**Bergara:**
- Ozaeta 105 $m^2$. Berritua.
- Bidekurutzeta. 85 $m^2$. Berritua.
- Artekale 60 $m^2$. Berritua. 153.258 €.
- Zubiaurre 67 $m^2$. Berritua. Eguzkitsua.
- Zabalotegi 60$m^2$. Oso ondo
- Barrenkale 82 $m^2$. Berritua.
- Osintxu. 70 $m^2$. Igogailuarekin. 153.258 €.
- Bidekurutzeta 103 $m^2$. Duplexa. Oso ondo.
- Lorentxoko 73 $m^2$. Eraikitzeko.
- Masterreka 92 $m^2$. Prezio ona.
- San Pedro 65 $m^2$. Ganbararekin.
- Osintxu 64 $m^2$. Berritua. 114.192 €.
- Bidekurutzeta 65 $m^2$. Berritua. Igogailuarekin.
- Simon Arrieta 70 $m^2$. Prezio ona.
- Zabalotegi 54 $m^2$. 154.761 €.
- Osintxu 62 $m^2$. Prezio ona.
- San Lorentzo 68 $m^2$. Berritua.
